



Hitzarmen guztien oinarria, jokoan

Metalgintzaren sektorean diharduten Durangaldeko langile eta sindikatuek bost eguneko greba hasiko dute astelehenen. Hainbat bider batu dira Bizkaiko FVME patronalagaz metalgintzaren hitzarmen kolektiboa adosteko, baina negoziaketa saio guztiek porrot egin dute. Bizkaian hedatu den hitzarmena da metalgintzarena, eta horrek herrialde osoko ongizate soziala jartzen du jokoan. Durangaldean, are eta modu nabarmenagoan • 4

"Hanka galdu eta hurrengo egunean protesia edukitzea miraria da"

Abadiño | Itziar Larrinagak eta Emi Matak hankako lau protesi bidali dituzte Ceutara (Espainia), bertara aterpe bila heldu eta protesi horien beharrezana zuten pertsonentzat. Elkartzunezko ekimena azaldu dute elkarrizketan. Bidalitako protesietako hiruk hartzailea dute jada.

• 6. orrialdea



Desfile herrikoia hasteko prest

Durango | Arropa eta oinetako denden denboraldi berria desfile herrikoia batez aurkeztuko dute jendaurrean. Gaur egingo da Durango Fashion Gaua. 5. orrialdea

Mallabiena



**M.Z.O. ITURGINTZA
GASA, BEROGAILUA, ERAIKUNTZA, S.L.**

Mallabiena industrialdea, 6 - 48215 IURRETA
Tel.: 946 818 862 / 946 816 051 / mallabiena@mallabiena.com
www.mallabiena.com





“Hil edo bizikoa da Bizkaiko metalgintzaren hitzarmena eguneratzea”

Durangaldearen pisu industrial delata eta, eskualdeko sindikatuek ezinbestekotzat jo dute metalgintzako hitzarmena berritzea. Denak bat datoz gakoa den irakurketa batean: langileen eta fabriken geroaz gainera, eskualde osoko egitura soziala da jokoan dagoena. Bizkaiko FVEM patronalagaz akordiorik lortu ez dutenez, greba egingo dute astelehenetik barikura arte

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Bost greba egun ate-joka dauden honetan, sindikatuen eta patronalaren arteko soka tenkatuta dago. 18 bat hilabete pasatu dira alde biak Bizkaiko metalgintzaren hitzarmena berritzeko negoziaketetan hasi zirenetik, eta tirabirak gaurdaino heldu dira. Aste honetan batzar bi egin dituzte, baina akordiorik barik amaitu dira. Jarrera "arduragabea" eta "onartezina" izatea egotzi diote sindikatuek patronalari. "Barikuan (gaur) beste negoziazio bilera bat egitekoak ginen, baina ikusi dugu gu entzutera bakarrik etorri dela patronala", azaldu du Aritz Huidobro, ELA sindikatuaren Durangaldeko industria arduradunak. LABeko Oihane Torresek "negoziketarako zabalik" jarraitzen dutela azaldu du, baina, horretarako, patronalak "edukiak" eraman behar dituela bileretara. Bat-bateko jarrera aldaketarik ezean, Durangaldeko eta Bizkai osoko metalgintzako langileek greba egingo dute astelehenetik barikura.

Eskualdeko sindikatuak bat datoz negoziaketek huts zergatik egin duten azaltzerakoan: patronalak azken egun hauetan egindako proposamenak ez dira langileek eskatzen dituzten gutxieneko baldintzetara gerturatzen. Durangaldeko UGTko Rafael Mena arduradunak dioenez,

"egon dira soldata, azpi-kontratazio, malgutasun eta aldi baterako kontratuei buruzko proposamenak. Orain arte ez da halakorik egon. Egia da hurbilketa bat badagoela, baina ez da nahikoa".

Durangaldea, giltzarri

Bizkaiko metalgintzaren hitzarmena eguneratzeak pisu berezia hartzen du Durangaldean. Modu zuzenean, 10.000 langileri eta 250 enpresari eragiten die gutxi gorabehera, baina, zeharka, eskualdeko ongizate sozial eta ekonomikoa ipintzen du jokoan. "Funtsezkoa eta hil edo bizikoa da Bizkaiko

Industria arloaz gainera, eskualde oso baten ongizate sozial eta ekonomikoa dago jokoan

metalgintzaren hitzarmena eguneratzea. Kontuan hartu gure eskualdea, atal handi batean, industrial delata. Durangaldea errelebantzia handiko tokia da metalgintzaren arloan", azaldu du Jaime Intxaustik, CCOO sindikatuko Durangaldeko arduradunak. Torresen esanetan, Durangaldea da, eskualdearen ondoren, Bizkaian pisu industrialik

handiena duen eskualdea. "Borroka honetan dagoen jarraipena nabaria da hemen", gaineratu du. Joan den maiatzean eta ekainean egindako bost greba egunak ipini ditu adibide lez. "Enpresarik gehienek produkzioa geldituta izan zuten eta funtzionatzen ibili zirenak produkzioa ezin aterata ibili ziren", esan du. Grebaren jarraipena %85etik %90era bitartekoa izan zela azaldu du. CGTko Rafa Plasenciak Durangaldeko langile klasearen aldarrikapenak Bizkaiko beste eskualde batzuetakoak baino nabarmenagoak izan ohi direla azaldu du.

Greba, patronala mugitzeko

Bost egun dituzte aurretik mobilizazioetarako. Huidobroren esanetan, greba egitea da langileei gelditzen zaien "borrokarako erreminta". "Historiak erakutsi digu, elkartasunaren eta konfrontazioaren bitartez baino ezin daitezkeela konkistatu dagoz-kigun eskubideak". Hitzarmen berririk ezean, momentu honetan indarrean dagoena mantenduko da Bizkai osoan. Mehatxuak ere baditu, baina. "Madriren estatuko metalgintzako hizarmenari bidea eman zaio" eta "balizko zentralizazio batek hemengo lan eta bizi baldintzak jomugan" jar ditzakeela adierazi du Torresek.

Langile baten galderak patronalaren eskaintzen aurrean

Negoziaketetan Bizkaiko metalgintzaren patronalak hainbat eskaintza egin dituen arren, sindikatuen iritziz ez dira gutxieneko baldintzak betetzen. Bost klabe nagusitan laburtu daitezke zeintzuk diren sindikatuen eskariak:



SOLDATA IGOERA

%1eko edo %2ko hazkundera, kategoria eta taularen arabera

Eskari nagusi bi daude soldatetan. Batek kategoria bakoitzean araututa ageri diren gutxieneko soldatei eragiten die. Besteak gutxienekoa baino gehiago irabazten dutenen soldatei. Lehenengoaren kasuan, soldatak KPI + %2 igotzea gura dute. Bigarrenaren kasuan, KPI + %1. "2011ko gutxieneko taulen arabera, 'peoi' kategoria duen langileak 1.084 euro gordin jasotzen ditu. Urgentziaz eman behar da igoera bat", dio LABeko Oihane Torresek.



MALGUTASUNA

Zapatuetan lan egiteari, muga

Gaur egungo hitzarmenagaz, urtean 4 edo 5 zapatutan lan egitera behartuta egon daitezke beharginak. Bada, kopuru hori 8 edo 10 zapatutara handitzeko proposamena egin du Bizkaiko Metalgintzako Enpresarien Konfederazioak. ESK sindikatuko Sergio Ortegaren iritziz, aldaketa horrek "langileen bizimodu sozial eta familiarrean" eragin dezake. "Gure bizimodua ekoizpen prozesuaren menpe ipini gura dute", gaineratu du.



ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAK

Neurriak langilearen finkatzean eragiteko

Aldi Baterako Lan Enpresak (ABLE) gehiegi kontratatzen direla iritzita, sindikatuek lanpostuen finkotasuna bermatuko duten neurriak eskatzen dituzte. Lan istripuek eta lan heriotzek aldi baterako kontratazioekin "lotura zuzena" dutela diote sindikatuek. ABLEak salbuespen kasuetarako baino ez dituzte onartzen; adibidez, gehiegizko eskariak dauden kasuetarako. ABLEak "iruzurrerako tresnak" ere badirela salatu dute.



EMAKUMEA

Emakumeen lan baldintzetan, berbetatik ekintzetara

Intentzio onagaz betetako bera asko, baina egiazko ekintza gutxi ikusten dute sindikatuek parekidetasunaren arloan. "Berdintasunean aurrerapauso efektiboak eskatzen ditugu. Kontuan izan behar dugu lanpostuen %30 emakumeek betetzen dituztela", azaldu du Oihane Torresek. Gizonen eta emakumeen arteko soldata arrakala %19,3 dela gaineratu du. Lan osasunari dagokion arloan ere, neurri zehatzak gura dituzte.



AZPIKONTRATAZIOA

Subrogazio klausula helburu

Sindikatuen oinarrizko eskakizunetariko bat azpikontratazioetan klausula bat ezartzea da. "Azpikontratutako enpresa aldatzen den kasuetan, langile berak eta horien baldintzak mantendu daitezela eskatzen dugu", adierazi du CCOOko Jaime Intxaustik. Modu horretan, bere esanetan, "langileek harreman gehiago izango luteke 'hartzailleak' diren enpresekin. Lan baldintza eta segurtasun arloan pareko leudeke".

Mende hasieratik honako hitzarmenetan desberdintasunak izan dituzten arren, oraingoz ahots bateratua agertu dute sindikatuek

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Hitzarmena lortzeko mobilizaziorik garrantzitsuenetarikoak orain etorriko diren arren, gatazkak soka luzea du. Ia hamarkada bi egin behar da atzera kontua nondik datorren ulertzeko, mende hasierara, hain zuzen ere. Orduan sinatu zuten gehiengo sindikalak eta patronalak Bizkaiko metalgintzako azken hitzarmen kolektiboa: 2001etik 2003ra bitartekoa. CCOO, LAB eta UGT sindikatuek sinatu zuten. Hirurek langileria erdia baino gehiago erreprezentatzen zuten, hitzarmenak izaera orokorra hartu zuen, eta, harrezkero, patronala behartuta dago akordioan jasotakoa betetzera. Gertatzen dena da metalgintzako beste hitzarmen bat etorri zela gero, 2008tik 2011ra bitartekoa. CCOO eta UGT sindikatuek sinatu zuten orduan, eta, langileria erdia baino gutxiago erreprezentatzen zuten, hitzarmenak izaera partziala hartu zuen. Hau da, enpresak ez daude bertan agerituz betetzera behartuta. Puntu horretan dago, hain zuzen ere,

egoera ulertzeko gakoetariko bat: hitzarmen bi egon arren sinatuta, izaera orokorra duena baino ez daude betetzera behartuta enpresak, 2001-2003koa. Ondorioz, desorekak agertu dira. Enpresa batzuek 2001eko hitzarmena dabilte eta beste batzuek 2008koa dute oinarri. Sindikatuek azaldu dute "enpresa berri askok" 2003ko soldata taulak erabiltzera jotzen dutela, ez daudelako berriagoak erabiltzera behartuta. Ondorioz, urteetan zehar kontsumo indizeak eta bizi-kalitatea aldatu diren arren, langile askok iraganeko lan baldintzekin segitzen dute.

Ahots bateratua

Negoiazio mahaia Bizkaiko Metalgintzako Enpresarien Federazioak (FVEM) eta lau sindikatu nagusiek osatzen dute (ELA, LAB, CCOO eta UGT). Dena dela, Durangaldean ordezkaritza duten beste hainbat sindikatuk ere bat egin dute eskariekin. Tartean daude ESK, CGT, CNT eta USO sindikatuek. Oraingoz, jarrera eta ahots bateratua osatu dute denek.



Aritz Huidobro.
ELA

"Langileak ikusten ari dira euren lan-indarragaz enpresen kontu korronteak handitzen dituztela, baina gero ez zaie la aberastasunik banatzen. Horrek izen bat du: lapurreta".



Oihane Torres.
LAB

"Pentsiodunak, feministak, gazteria, ikasleak, Harro! plataforma,... azken finean, bizitzako prekarizazioa sufrizten ari direnak borroka honen parte sentitu dira, eta badira".



Jaime Intxausti.
CCOO

"Lan osasunari dagokionez, ezin dugu utzi hildakoen eta zaurituen kopurua handitu dadin. Parekidetasunari dagokionez, lan asko dago egiteko; industrian, batez ere".



Rafael Mena.
UGT

"Hitzarmen kolektiboa eta lan baldintzak hainbeste denboran eguneratu barik egotea anomalia da. Gatazkak lan arloa du oinarri, baina gizarte osoan eragiten du".



Sergio Ortega, "Txexo"
ESK

"Metalgintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Produktu Gordinaren %20 hartzen badu, kopuru hori handitu egiten da Durangaldean".



Rafa Plasencia
CGT

"Autokritika bat eginda, iruditzen zait sindikatuen artean egon izan diren tirabirek hainbat langile urrunarazi dituztela sindikalismotik. Batasun hau ezinbestekoa da".



Santos Vazquez "Soni".
CNT

"Gure langileen artean haserre giroa da nagusi. Prebentzio neurriak falta dira, enpresetan autoritarismoa da nagusi. Greba arrakastatsua izango dela itxaroten dugu".

“Ez dago gobernurik eta egoera okertzen ari da; sekula baino gehiago egin behar dugu protesta”

Durangaldeko pentsiodunek mobilizazioetan “salto kualitatibo” bat emango zutela iragarri zuten eta jada ate-joka dituzte protestak. Astelehenean Durangon egingo dutena da horietako bat. Espainiar estatuan gobernua zintzilik egoteak orain arte egondako akordioak arriskuan ipintzen dituela diote. Euren borroka gazteena ere badela azpimarratu dute

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Durangaldeko pentsiodunen mugimenduak protestarako deia egin du, pentsio duin eta publikoak aldarrikatzeko. Astelehenean, hilaren 30ean, mobilizazioa egingo dute, Durangon, Andra Mariko elizpean, 12:00etan.

Ikasturte honetan ‘salto kualitatibo’ bat emango zenutela adierazi zuten orain aste batzuk. Zeintzuk aldatu egongo dira zuen protestetan? Maria Pilar Mintegia: Gure ekintzak ez dira astelehenero 12:00etan egiten ditugun mobilizazioetara mugatuko. Areagotu egingo ditugu aldarrikapenak.

Eguzkiñe Uriondo: Aurretik daukagun egoera arriskutsua da. Ikusten gabiltzana da Espainiar estatuan berriro egingo direla hauteskundeak, eta horregaz pikutara joan daitezkeela orain arte egindako lorpenak. “Toledoko hitzarmena” baino ez genuke izango, eta, horre-

“

Hauteskundeekin pikutara joan daitezke orain arte izandako lorpenak”

—

gaz, %0,25 bakarrik igoko lirateke pentsioak 2020an. Ez dago gobernurik eta egoera okertzen ari da. Pentsiodunok sekula baino gehiago egin behar dugu protesta gure aldarrikapenak sinatu daitezke.

M.P.M.: Gure eskakizunak indargabetuta gelditzen dira etengabe. Gobernua aldatzean, presidentetza aldatzean,... gure lorpenak indargabetuta gelditzen dira. Pentsioak blindatzea gura dugu, agintaritzan edozein egonda ere, sinatutakoa indarrean geratu dadin.



Eguzkiñe Uriondo eta Maria Pilar Mintegia Durangaldeko pentsiodunen plataforma

Zeintzuk dira testuinguru politikoa-gatik arriskuan ikusten dituzuen aldarrikapenak?

E.U.: Bizimodua garestitu egin denez, pentsioetan ere islatu behar da igoera hori. Kontsumoko prezioen indizea %1,6 igo bada, pentsioetan

“

Kontsumoko prezioen indizea igo bada, pentsioetan ere igoera behar da”

—

ere pareko igoera bat egon behar da. Alarguntasunagaz ere badira

arriskuak, eta baita pentsioen jasangarritasun kutxagaz ere. Dena airean dago.

M.P.M.: Alarguntasunaren pentsioa %3 igoztea hitzartu da, baina trampa bat dauka. Alarguntasun pentsioaz gainera, ohiko jubilazio pentsioa jasotzen badu, ez du %3ko hazkunde hori jasoko. Pentsio biak jasotzen diren kasuetan, baliogabetu egiten dira alarguntasunean emandako onurak.

Pentsio sisteman aldatetak egiteko borondaterik ikusten duzue agintarien aldetik?

E.U.: Haiek dirurik ez dagoela diote. Guk ikusten duguna da segun eta zertarako, egon badagoela dirua.

Hasi daitezela neurriak hartzen. Bizi osorako soldatak dituzte, senatu bat ere badute erdi lo egoteko. Dirudik ez badago, ez dadila ino-

“

Diseinatu dezatela zergen bitartez eraikiko den pentsio sistema publikoa. Zergatik ez?”

—

rentzat egon. Pentsioen kutxatik dirua hartu zuten, zer eta bankuak erreskatatzeko, paradisu fiskaleta-

rako,... Itzuli diezagutela diru hori. Bestalde, diseinatu dezatela zergen bitartez ere eraikiko den pentsio sistema bat. Zergatik ez? Iruditzen zaigu hori dela irtenbide bat.

M.P.M.: Gainera, orain ikusi dugu Bizkaiko Foru Aldundiak erraztasunak eman gura izan dizkiela errenta altua duten herritar bartzuei.

E.U.: Presioa egiten gabilta, estatuan, Jaurlaritzan. Esaten digute pentsio sistema pribatua dela irtenbidea. Guk ez dugu halakorik gura. Pentsioen sistema publikoa gura dugu.

Gazteria inplikaturik al dago zuen aldarrikapenetan?

M.P.M.: Borroka hau gurea bakarrik den irudia dute. Guk apurtu egin

“

Gazteriak ikusi behar du gauzak aldatu egin behar direla, etorkizunean eurak ere pentsiodun izango direla”

—

gura dugu irudi hori. Gazteriak ikusi behar du gauzak aldatu behar direla, etorkizunean eurak ere pentsiodun izango direla.

E.U.: Gure aldarrikapenen artean, gainera, gazteriaren interesekoak diren eskariak ere badaude. Soldata minimoa 1.200 eurotan ipini dadin ere eskatzen dugu. Kotizazioa handituko luke horrek. Gazteek jakin behar dute borroka hau euren ere badela.

Astelehenean egingo duzuen protestak metalgintzako langileen grebaga bat egingo du.

E.U.: Gainjartzen diren borroka bi dira gurea eta metalgintzako langileena. Lanik ez badago, ez dago pentsiorik. Elkarri laguntzen diogu mugimendu bietan. Metalgintzakoek astelehenean mobilizazio bat Durangon egitea erabakitzen badute, hortxe egingo gara. Eta, alderantziz. Eurek gure mobilizazioan ere egingo lirateke. Eta Durangaldean barik Bilbon mobilizatzea erabakitzen badute, bada, berdin. Bizkaiko pentsiodunak hantxe izango dira, metalgintzako langileekin batera.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko irailaren 20a
17. urtea - 776. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

2015 **Bikam**
Kulturaren eta Hizkuntzaren
Departamentuaren Erakunde
Ofiziala

PEFC
Produktu hau
kontsumatzeak
inon ere ez du
egun dago, berriketa
deklaratu behar
duzue. Gure
www.pefc.es

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durungaldeko hainbat udalek klima aldaketari aurre egiteko borondatea azaldu dute

Durangoko Udalak larrialdi klimatikoak deklaratu du

DURANGALDEA • E.H./M.Z./A.M.

Klima aldaketaren aurkako nazioarteko grebaren atarian, Durungaldeko udalbatzek neurriak hartu dituzte: Durangoko Udalak larrialdi klimatikoak deklaratu du herritar baten adierazpena onartuta. Udalbatza osatzen duten alderdi guztiak bat etorri dira klima aldaketari aurre egiteko neurriak hartu behar direla esatean, baina ñabardurak agertu dituzte horri zelan aurre egin azaltzerakoan. EH Bilduren eta Herriaren Eskubidearen botoekin ezarri da Durangon larrialdi klimatiko egoera. EAJk eta PSE-EEK abstentziora jo dute. Mireia Elkoroiribe EAJko bozeramaileak Eusko Jaurlaritzak joan zen uztailan publiko egin dako adierazpena erakutsi zuen

jarraitu beharreko bideorri lez. Jaurlaritzaren adierazpen hau Abadiñoko eta Berrizko udalbatzetan ere eztabaidatu dute. Berrizen, larrialdi klimatikoari buruzko hiru adierazpen zeuden, Greenpeace elkarteak aurkeztutako adierazpen bat tartean. Azkenean, Jaurlaritzarena onetsi zuten. Abadiñon, bi onartu zituzten: Jaurlaritzarena eta EH Bilduko udal taldeak aurkeztutakoa.

Gaur, greba

Durangoko Udalak bat egingo du gaur nazioartean deituta dagoen klima aldaketaren grebagaz. Protesta egiteko, 22:00etatik 23:00etara udal eraikinetako argiteria amatatuko dutela azaldu du Garazi Errasti zinegotziak.

Familian euskara sustatzeko olgeta programa, martxan

Durungaldeko parke eta eskola jolastokietan euskaraz egiteko programa azarora arte egingo da indarrean

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Ume eta helduen arteko jolasa euskarazkoa izateko bokazioz, *Familian euskaraz olgetan* programa hasi dute. Ordubeteko iraupena duten 30 saio ludiko dira eta Amankomunazgoko parte diren herrietan eskainiko dituzte, hango parke eta eskoletako jolastokietan. Euskara gozamenagaz eta bizipen positiboekin lotuko dute saioetan. Egitasmoa azaroaren erdialdera arte egingo

da erabilgarri. Plaza mugatuak dira eta komenigarria da izena alde aurretik ematea, *gazteak@berbaro.eus* helbidera idatzita edo 94 620 25 40 telefono zenbakira deituta. *Familian euskaraz olgetan* Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak eta Berbaro euskara elkarteak batera garatutako programa da. Egitasmoa 2013an sortu zen eta aurten berriro bueltatu da etenaldi txiki baten ondoren.

Durangoko Udalak metalgintzako sindikatuen eskariak babestu ditu; Abadiñokokoak, ostera, ez

EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak sindikatuak aurkeztutako adierazpena babestu dute. EAJ eta PSE-EE abstenitu egin dira. Abadiñon, adierazpenak ez du nahikoa babes jaso

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Metalgintzako hitzarmena berritzeko eztabaidak Durangoko eta Abadiñoko udalbatzetara heldu dira. Jaime Intxausti Durungaldeko CCOOko arduradunak adierazpen bat aurkeztu zuen eguaztenez Durangon egindako osoko bilkuran. ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuen izenean egin zuen berba, eta udala negoziat

ketetan inplikatu zedin eskatu zuen. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak adierazpena babestu zuten. EAJk eta PSE-EEK abstentziora jo zuten. Sindikatuen eta patronalaren arteko bileretan udalak "negoziatzeko eskumenik ez duela" azaldu zuten. Abadiñoko kasuan, EH Bilduk aurkeztu zuen sindikatuen adierazpena, baina ez zuen babes nahikoa lortu. EAJk

Aurten ez da modelo profesionalik egongo Durango Fashion Gauean

Herritarrak izango dira pasarela gaineko protagonista bakarrak gaur iluntzeko desfilean



Dendak Bai elkarteak kideak, desfilea aurkezteko astelehenean eskainitako prentsaurrekoan.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Dendak Bai Durungaldeko merkatarien elkarteak Durango Fashion Gaua antolatu du gaurko, 20:30erako, Andra Mariko elizpean. Aurtengoa laugarren aldia da eta, lehenengoz, ez da modelo profesionalik egongo. Denak herritarrak izango dira: casting bitartez hautatutako 38 nagusi eta dendek aukeratutako 15 ume.

Urtero legez, Andra Mariko elizpean egingo dute desfilea, gaur, 20:30ean hasita

Nobedade horregaz, "publiko guztiarengana" heltzea dute helburu, Alex Palacios elkarte-ko presidentek asteleheneko

aurkezpenean azaldu zuenez. "Pertsona lodiak, argalak, garaiak eta txikiak, denerik ikusten da kalean, eta bizitza errealeko irudi horretara hurreratu ahalko gara", gaineratu du. Beraz, aurten, neurri guztietako arropa gehiago ikusi ahalko dira. "Aurreko urteetan ere egon dira horrelako arropak, baina, aurten, dendarik gehienek aurkeztuko dute neurri handiko arroparen bat", dio Miren Garrastazu Dendak Bai-ko teknikariak.

22 saltokiren proposamenak Modeloek Durangoko 22 saltokitako udazken-negu denboraldirako proposamenak jantziko dituzte; adin eta estilo guztietako arropa, oinetakoak eta osagarriak. Saltoki bakoitzak erakustaldi bat izango du. Umeen dendek bost look erakutsiko dituzte guztira, eta nagusie-

Saltoki bakoitzak erakustaldi bat izango du: umeen bost 'look' erakutsiko dituzte eta nagusienek lau

nek, lau. Ekitaldia, urtero moduan, Yolanda Alzola durangarrak aurkeztuko du.

Ikuskizuna eta zozketak

Desfilean zehar, L'Atelier dantza eta antzerki eskolak dantza erakustaldi bi eskainiko ditu. Horietako bat klasikoa izango da, eta bestea *dance* estilokoa. Horrez gainera, aurretik txartelak entregatu dituztenen artean, 500 euroko deskontu txartelen zozketa egingo dute, besteak beste.

Zapatuan, Kulotxako jaiak ospatuko dituzte Elorrion

Orain hiru urte, lehenengoz antolatu zituzten Kulotxa auzoko jaiak, eta, harrezkero, urtero ospatzen dituzte

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zapatu honetan, aurten hirugarren urtez, Kulotxako jaiak ospatuko dituzte Elorrion. Kulotxa auzo elkarteak kideek egitarau zabala antolatu dute beste urte batez auzoko jaietarako, hilaren 28rako.

Elorrioko artisau eta ekoizleen azokagaz emango diete hasiera egunari. 11:00etan umentzako jolasak eta tailerrak egingo dira,

eta 14:00etan bazkari herrikoian batuko dira elorriarrak. Arratsaldean puzgarriak egingo dira Kulotxara doazen umeentzat, eta 18:00etan disko festa izango da Ekhytxu taldeagaz. 20:00etan suzko zezena egingo da eta, azkenik, auzotarrek afari-kontzertu batez emango diete amaiera Kulotxako jaiari. Rojo Cancionero musika taldeak giroa du jaietako afaria.

“Hanka galdu eta hurrengo egunean protesia edukitzea miraria da”

Hemendik Harantz elkarteak lau protesi bidali ditu Ceutara (Espainia). Horietako hiruk hartzailea dute jada

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Azken asteetan, elkartasunak Durangaldea eta Ceuta batu ditu. Itziar Larrinaga abadiñarra Hemendik Harantz elkarteko kidea da. Eta Emi Mata Abadiñon bizi den durangarra. Kasualitate ia magiko batek, istorio polit bat jaio da; momentuan erabilpenik ez zuen protesia sorta batek hiru lagun bizitza berri bat hasteko aukera emango die.

Nolatan bidali dituzue protesiak Ceutara?

I.L.: Zazpi lagun ezkatututa zeramatzan auto batek istripua izan zuela irakurri nuen. Lagunetarik bati hanka moztu zioten. Emiren aitaren protesiekin gogoratu nintzen orduan.

Emi Mata: Aita hil eta gero, etxean lau protesi genituen. Ez genituen erabiltzen. Nire asmoa Siriara edo errefuxiatuen guneren batera bidaltzea zen, baina ez nekien nola. Hemendik Harantz elkarteak postua ipini zuen egun batean Abadiñon, eta hara joan nintzen.

I.L.: Ceutako egunkariekin eta os-

pitalagaz hartu-emanetan ipini ginen, gure protesien berri emateko. Hanka moztu eta hurrengo egunean protesia batzuk agertzea mirari bat zela esan ziguten ospitalean. Dena prestatzen hasi ginen protesia bidaltzeko. Beste mutil baten kasuaren berri eman ziguten. Diabetesa zuen eta berak ere hanka galdu zuen. Egunotan, protesia behar duen hirugarren baten kasua ere aipatu digute. Ceutako elkarte batzuen eta Gurutze Gorriaren birtartez egin ditugu tramiteak.

Amaiera atsegina, eta, aldi berean, zerbaiten hasiera?

I.L.: Hori da. Albistearen harira, jende asko ipini da hartu-emanetan gugaz, bai zoriontzeko, bai gauza berriak eskaintzeko.

“**Nire asmoa, hasieran, protesiak Siriara edo errefuxiatuen guneren batera bidaltzea zen, baina ez nekien nola egin**”



E.M.: Guk bihotza beteta dugu, egin duguna ondo egin dugulako. Norbaitek etxean baztertuta dituen gauzak oso baliagarriak izan daitezke beste norbaitezat.

Elkartearantz ere positiboa izango da.

I.L.: Lan handia izan da, eta beste-lako loturak sortzeko baliagarria

izan da. Gainera, albisteak oihartzuna izan du eta horrek ere lagunduko du bestelako ekimenetarako; aste batzuk barru abiatuko dugun arropa bilketarako, adibidez. Neguko arropa bilduko dugu, Greziako errefuxiatuei bidaltzeko.

Bestalde, erakundeetako ordezkariei dei egin gura nieke. Gure

guneetatik irten, eta mugetatik haratago begiratu dezatela. Joan daitezela mugetara, beste kultura batzuk ezagutzeko, beste jende bati entzuteko, zerbait emateko eta jasotzeko. Horretarako prest egoteko. Horrela, hain ezkorrak izan beharrean, eurak ere eskuzabalagoak lirateke.

Zaldibarko liburutegiak hainbat ekitaldi antolatu ditu udazken honetarako

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarko liburutegiak hainbat aktibitate antolatu ditu haur, gazte zein helduentzat, udazkenetarako. Gurasoentzat eta hezitzaileentzat, adibidez, Juan Karlos Alonso psikologoak hiru hitzaldi emango ditu (azaroaren 7an eta 28an, eta abenduaren 12an izango dira saioak). Ipuinek eta emozio hezkuntzak umeengan duten eraginari buruz hausnartzea bilatzen dute berbaldiek.

Bestalde, gazteentzat *Mahai jolasen arratsaldeak* eta eskulan tailerrak prestatu dituzte. Ipuin kontalariak ere egongo dira. Urriaren 4an, *Emozioei buruzko ipuinak* egongo dira, azaroaren 8an *Hitza marrazten*, eta abenduaren 13an *Mari Domingiren sekretuak*.

Hurrengo aste bietan, proba moduan zabalduko dute kiroldegia Mañarian, ordu jakin batzuetan

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Astelehenean, kiroldegi berriko proiektuari alegazioak aurkezteko epea amaitu zen. Inork ere ez du alegaziorik aurkeztu. Beraz, hurrengo urratsa kiroldegia zabaltea da. Datorren astelehenean aurrera, aste bitan, proba moduan zabalduko dute, ordu jakin batzuetan: astelehenean eta eguaztenetan 17:00etatik 20:30era, eta martitzen, eguen eta barikuetan 11:00etatik 13:30era. Monitore bat egongo da uneoro bertan, funtzionamenduen gaineko azalpenak emateko. Ondoren, urriaren 14tik aurrera, ordutegi osoan zabalduko dute: 07:00etatik 23:00etara, asteko egun guztietan. Astelehenean hasiko da gimnasia txartela eskuratzeko epea. Udalak jaso beharko da.

Iurretako Udalak azken pausoa eman du Fundigelen orubean duen lursaila saltzeko

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Fundigel bota ondoren geratu zen orubearen urbanizatze proiektuaren ondorioz, Iurretako Udalak eskuratutako lur zatia saltzeko lizitazio espedientea eta hori arautuko duten administrazio baldintza berezien plegua onartu dute aste honetan. EAJren aldeko botoekin onartu dute. EH Bilduk aurka bozkatu du, lursail hori saltzetik aparte egon litezkeen beste aukera batzuk ez direla aztertu uste dutelako. “Babeseko etxebizitzetarako dagokienez, badago hutsune bat eta hau aukera bat izan daiteke”, esan dute. Udalak ia 600.000 euroan ipiniko ditu salgai 420 metro koadro, bertan 10 etxebizitza egiteko. Fundigelek utzitako lursailan, guztira 84 etxebizitza eraikitzea dago aurreikusita.

Frontenis txapelketa bi abiatu dituzte Mallabian

Gizonen buruz buruko zapatu honetan izango da eta emakumeen bikotekakoa urriaren 26an jokatu dute

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabia Kirol Elkarteak antolatu ditu txapelketa biak. Gizonen buruz buruko torneoa eskolako frontoian jokatu dute, zapatu honetan. Irabazleak 60 euro jasoko ditu eta bigarren sailkatuak, 40 euro. Aurten antolatu duten buruz buruko bigarren txapelketa da. Aurrekoa, maiatzean amaitu

zena, Andoni Aldape mallabitarrak irabazi zuen.

Urriaren 26an, emakumeen binakako txapelketa jokatu da Mallabiko pilotaleku nagusian. Izen-ematea hasita dago eta 16 euro izango da bikoteko. Txapeldunek 200 euroko saria jasoko dute; bigarren bikoterik onenarentzat 150 euro gorde dituzte.





Mainondon dagoen frontoiaren azpialdeko espazioan egin dute kiroldegi berria.

Otxandioko kiroldegi berria sei ikastarogaz estreinatuko dute, urrian

Udalaren eta Mainondo Kirol Elkartearen elkarlanari eskerrak lortu duten eskaintza da

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandiarrek kirola egiteko gune berri bat dute Mainondoko frontoi azpian. Urritik aurrera hasiko diren sei ikastarogaz estreinatuko dute kiroldegia berria.

Ikastaroak honako hauek dira: hipopresiboak, txirrinbiki, mantentze gimnasia, intentsitate handiko entrenamendu funtzionala, yoga-mindfulness eta fitness librea. Udaletxean eman behar da izena, eta irailaren 30a izango da azken eguna horretarako.

Ikastaroak udalaren eta Mainondo Kirol Elkartearen elkarlanari eskerrak antolatuko dira. Udala kudeaketaz arduratuko da eta kirol elkarteok antolaketa lanak egingo dituzte.

2021ean, gimnasioa

Kiroldegi berria ez dago guztiz amaituta. Aldagelak, igogailua — irisgarritasuna bermatzeko — eta 20-30 bat lagunentzako areto bat daude erabilgarri. Areto horretan

eskainiko dituzte, hain zuzen ere, ikastaroak. Datorren urtera begira beste areto handiago bat egokitzea eta hura gimnasia egiteko makinek hornitzea du helburu udalak.

Aurten ezin izan dute gimnasioa zabaldu, besteak beste kirolgunera sartzeko txartel sistema ipini barik dagoelako. Horregatik eskainiko dituzte ikastaroak aurten; atea monitoreek zabalduko dituzte eta ez da txartel beharko sartzeko.

Heriotzari buruzko errituak ezagutzeko bisita gidatuak Garain

GARAI • EKAITZ HERRERA

Heriotzaren gaineko sinesmenak eta errituak ezagutzeko, bisita gidatua antolatu dute Garain. Urriaren 5ean egingo dute, 19:00etan, eta dagoeneko zabalik dago bertan parte hartzeko izen-emate epea. Bisitan zehar, eguzkiak edo suak ehorzketetan zuten esangura zein zen interpretatzen lagunduko dute, eta pertsona maiteei jendaurrean agur esateko tradizioa denboran zelan aldatu den ere erakutsiko dute. Ibilbidea Moioitioko San Juan basilikan hasi eta hilerrian amaituko da. Bisitari kopurua mugatuta dagoenez, izena alde aurretik eman beharko da 673 005 981 telefonora deituta edo ejardunaldiak@gmail.com helbidera idatzita.

Atxondoko Udalak umeentzako parke berri bat eraikitzea proposatu du

Datorren urteko aurrekontuetan diru kopuru bat ipintzea proposatu du udalak, jolasgune berria egiteko

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zenbait gurasok egindako jolasgunea itxita dago ekainetik hona. Udalak asteon jakinarazi duenez, udal arkitektoak, ingeniari aditu batek, sakon aztertu du jolasgunea, eta hainbat irregulartasun daudela ondorioztatu dute. Gaine-

URAK hirigintza araudia betetzen duen proiektu bat aurkezteko eskatu dio Atxondoko Udalari

ra, ingeniariak bi edo hiru urteko epean jokoak guztiz berreraiki beharko zirela esan duela adierazi du udalak ohar bitartez: "As-

ko sentitzen dugu auzolana egin zutenean aurreko udal taldeak proiektua gainbegiratu ez izana eta erantzukizun ezak horrelako ondorioak ekartzea".

Horrez gainera, URAK hirigintza araudia betetzen duen proiektu egoki bat aurkezteko eskatu diola udalari jakitera eman dute. Hori horrela, Atxondoko Udala aurreproiektu bat prestatzen dabil.

Bestalde, udalak azaldu du prest daudela kaltetuta sentitu diren taldeekin batera beste gune bat topatu, eta umeentzako parke berri bat sortzeko. Eta datorren urteko aurrekontuetan, aurrekontu parte-hartzaileen atalean, diru kopuru bat ipintzea proposatu du udalak.

Bidegaineko lanekin, oinezkoen irisgarritasuna bermatuko dute Berrizen

Hiru hilabete egingo dituzte lanak eta 219.221 euroko aurrekontua dute; Aldunditik 29.263 euroko laguntza jaso dute

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Oinezkoen irisgarritasuna eta ibilgailuen zirkulazio segurua bermatzeko asmoz, Bidegain kalean lanak egiten dabilta Berrizen. Udalak prentsa ohar batean jakinarazi duenez, inguru berde pribatuak ezabatuta espaloiak zabaldu egingo dituzte, oinezkoen irisgarritasuna bermatzeko. Errepideak zabalera nahikoa hartuko du ibilgailuentzat.

Horrez gainera, kalearen erdigunean, aparkalekuak errepidea-

ren alde bietan egongo dira; eta kalearen hasieran eta amaieran, ostera, alde bakarrean.

Bestalde, lan hauekin, Berrizko Udalak Iturritza-Bidegain kaleko lanei jarraipena emango die. Obrek 219.221 euroko aurrekontua dute eta hiru hilabete epean amaitu beharko dituzte. Bestalde, udalak ohar bitartez jakinarazi duenez, Bidegain kaleko lanek Bizkaiko Foru Aldundiaren 29.263 euroko hasierako diru-laguntza izango dute.

Puro Relajo taldeak zuzeneko eskainiko du Dudeako jaietan

Dudeako San Migel jaien barruan, Joxe Mendizabalen Erromeria.eus taldearen dantzaldia ere izango da

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Gaurtik domekara bitartean, jaietan murgilduta egongo dira Dudeako San Migel auzoan. Gaur, Mexikar Gauaren barruan, Puro Relajo taldeak kontzertua eskainiko du, 22:30etan. Ondoren, DJ Fardy-ren musikak girotuko du gaua.

Zapatua Mozorro Eguna izango da. Auzoko ermitatik ibilaldi bat egingez hasiko dute eguna. Hi-

tzordua 10:00etan da. Eguerdian, 14:00etan, bakailao txapelketa egingo dute, eta 22:00etan Joxe Mendizabalen Erromeria.eus taldeak dantzaldia eskainiko du. Ordu berean, banakako bolo txapelketan parte hartzeko aukera ere egongo da.

Igandean, animalien erakusketa bat egongo da eguerdian, eta 19:00etan hasiko den parriladagaz amaituko dituzte jaiak.

2020ko zergak eta tasak izoztu egin dituzte Atxondon

Datorren urterako ordenantza fiskalak onartu dituzte, EAJren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioagaz

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen asteko udalbatzarrean, Atxondoko Udalak 2020ko zergak eta tasak izoztea onartu zuen, EAJko bost zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bilduko hiru zinegotzien abstentzioagaz. "Ez ditugu tasak igo gura; beraz, izoztu egingo ditugu. Hala ere, datorren urtera begira, hiru bonifikazio ezarri gura ditugu", adierazi zuen Gorka Garate alkateordeak. Hori horrela, datorren urtean, %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten herritarrek igerilekuko txartelean %50eko bonifikazioa izango dute. Bestalde, auto hibridoek eta auto elektrikoek matrikulazio zergan %50eko eta %75eko hobaria izango dutela jakitera eman zuen alkateordeak.

Horrez gainera, saneamendurako 10.000 euroko diru partida bat onartuko dutela, eta, hori amaitutakoan, eskariak egoten badira ere, ez dutela laguntza gehiagorik emango jakitera eman du gobernu taldeak.

Zergak eta tasak izoztu dituzten arren, Atxondoko Udalak hiru bonifikazio ezarri ditu

Ane Intxausti EH Bilduko bozeramaileak abstentzioaren arrazoiak eman zituen: "Ez genuen itxaroten bilkura asteon egitea, eta ez dugu gaia lantzeko astirik izan".

“Ehiza denboraldiak irauten duen lau hileetan ezin dugu bizimodu normala egin”

Bitañoko hainbat auzotarrek etxe ondoan ehiza postuak izateak eragiten dizkien kalteak salatu dituzte



Bitañoko bizilagunak auzoko ortu batean.

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Ehiza denboraldia hasten denean, Bitañoko auzotarren bizimodua aldatu egiten da. Jesus Oñate, Maribi Erdoiza, Maribi Urkiza, Angel Erdoiza eta Iñaki Rueda ehiza postuz inguratuta bizi dira, eta horrek hileetan eragindako kalteak salatu dituzte. Maribi Erdoizaren sinaduragaz, idatzi bat ere bidali dute Bizkaiko Aldundira, Bitañoko ehiza guneak debekatu ditzaten eskatzeko.

Zeintzuk dira arrazoi nagusiak ehiza gunearen debekua eskatzeko?

Iñaki Rueda: Hainbat daude. Batetik, auzotarren segurtasuna dago.

Angel Erdoiza: Ortuaren edo landan nabiltzean, perdigoiak goitik behera jausten zaizkit batzuetan. Baserrira ere heldu izan dira perdigoiak.

Jesus Oñate: Niri berdina gertatzen zait. Nire ortura perdigoiak jausten dira, eta ni bertan lanean banabil burura jausten zaizkit.

I.R.: Niri hauxe gertatzen zait: Irail-

lean ehiza denboraldia hasten denean otsaila hasten den arte, nire ilobak ez dira baserrira etortzen. Gurasoek beldur handia dute eta ez dituzte ekartzen, segurtasun kontuengatik. Beraz, ez da Bitañoko auzotarren mugatzen den arazoa. Beste adibide bat: geroago eta jende gehiago etortzen da inguru honetara paseatzera. Tiroak entzun eta, jakina, estutu egiten dira, ez dakitelako nondik eta nora dabilzan tiroka.

Maribi Erdoiza: Ehiza denboraldiak irauten duen lau hileetan ezin dugu bizimodu normala egin.

Beraz, pertsonen segurtasuna da arrazoi bat.

J.O.: Bai, baina ez bakarrik. Kutsaduraren arrazoi ere hor dago.

I.R.: Perdigoiak berunez eginda daude. Ikertzen ibili naiz eta oso material toxikoa da. 100etik 300 urtera behar ditu desagiteko. Imajinatu hemen ehizan egin izan den

50 bat urtean zenbat berun jausiko zen ortura eta landetara! Lurra baino plomu gehiago dago.

Maribi Urkiza: Plomua lurragaz nahasten da edo azetako eta beste ortuarren hostoen artean geratu daiteke. Ortuari horiek kontsumitu egiten ditugu!

I.R.: Hori ortuen kasuan, baina landetara ere jausten dira perdigoiak. Kasu horretan, perdigoia eta bolbora banatzen dituen plastikozko takoa da arriskutsua. Ikertu dudaren arabera, 60 urte behar ditu desagiteko. Landara jausten dira eta gero fardo artean geratu daitezke. Abereek fardo horiek jaten dituzte.

Iñaki, Aldundiko teknikari batez har-tu-emanetan zaude. Zer esan zizun?

I.R.: Arau-hausteak ikusten baditugu, Ertzantzara jotzeko erantzun zidan, idatziz. Baimenak eman eta gero, eskuak garbitzen dituzte.

Arartekora ere jo duzue.

I.R.: Bai. Arartekoko abokatu batez batu nintzen, martitzenean. Gertatzen zitzaiguna ezin zuela sinistu esan zidan. Pauso ofizial bat behar dute aurrera egiteko. Beraz, Aldundian dossier bati sarrera eman nion, hango zigilua izateko. Horrela, pare bat hileren barruan Aldundia behartuta dago Arartekoari erantzun bat ematera.

DURANGALDEA • M. BELAUSTEGI / TTAP

TTAP aldizkariak Elena Laka eta Kike Amonarriz batu ditu, Bergarako Errekalde jauregian. Elena Laka Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria izan da 2014ko apiriletik hona, eta utzi egin du kargua. Kike Amonarriz Euskaltzaleen Topaguneko lehendakartzarako hautagai legez aurkeztuko da gaur, barikua, Andoainen egingo den batzar nagusian. Berak hartuko du Lakaren lekukoa.

Ez da kasualitatea Bergaran elkar-tu izana Euskaltzaleen Topaguneaz berba egiteko.

Elena Laka: Bai, eta Bergarako badu esanahi berezi bat Euskaltzaleen Topagunearentzat, ezta? 1996an tokian tokiko euskara elkarteek pentsatu zutenean edo pentsatu genuenean tokian tokiko egitura hori gaintzea eta horrek batuko zituen egitura nazional bat sortzea, sorrera bilera hori Bergaran egin zen. Horregatik, badauka esanahi berezia.

Kike Amonarriz: Bai, eta, gainera, pertsona batzuk datozkigu gogora, ezta, Elena?

E.L.: Bai, nik gogora ekarri nahi nituzke dagoeneko gurekin ez dauden Eibarko eta Tolosako pertsona oso esanguratsuak. Nola haiek amestu zuten Euskaltzaleen Topagunea, mugimendu nazional bat, tokian tokiko

“Euskaltzaleen komunitatea erdigunera ekarri dugu”

Elena Lakak Euskaltzaleen Topaguneko presidente kargua utziko du; Kike Amonarrizek hartuko du lekukoa



mugimendua gaintutako zuena. Etxe hau eraiki ahal izateko, euren jarri zituzten oinarriak.

K.A.: Bai, eta haiei eta haiek bezalako pertsona askori esker gaude hemen. Mugimendu oso polita sortu zen, eta gaur egungo Topagunearen errealitatea ulertzeko, uste dut garrantzitsua dela jabetzea Topagunea ez zela sortu aurrea eta gero elkarteak etorri zirela. Ez. Kontrako bidea izan zen, oso behetik gorakoa. Elkar-

teak hainbat lekutan zeuden, eta elkar-tu beharra eta hura koordinatu beharra ikusi genuen. Nolabait, federazio bat antolatu beharra. Horrek azaltzen du zergatik daukaten euskara elkarteek horrelako nortasun propio indartsua, nire ustez, gero eta gutxiago, baina oso prozesu polita izan da ikustea nola konbinatu talde bakoitzaren indarra, autonomia eta nortasun hori, mugimendu zabal batean.

E.L.: Gainera, atzean utzi ezin dezakegun nortasuna dela uste dut. Erabat garrantzitsua da elkarte bakoitzak eta herri bakoitzak bere nortasuna izatea. 90eko hamarkada hasiera horretan, elkarteak herriz herri sortzen hasi ginenean, denak Arrasateko AED elkartearen ondorengotik, bakoitzak bere ibilbidea izan zuen, eta orduan zaila zen pentsatzea egitura nazional bat izan zitekeela. Gero, Topagunea

sortu zenetik 22 urte pasatu dira jada, eta, behetik gora sortutako federazio bat izanik, talde-lan bat eginez eta gizarte mugimendu moduan eratu da. Uste dut Euskaltzaleen Topaguneko balio garrantzitsuenetako bat horixe dela, ez dela erakunde pertsonalista.

Biak ere heteranoak Topagunean, eta zure kasuan, Elena, 2014tik hona, lehendakaria. Oraintxe laga duzu; zergatik?

E.L.: Bost urte badira zerbait (barez). Lagatzeko momentua dela uste dut. Bost urtean ibili naiz, ahal izan dudana neurrian, burubelarra sartuta eta inplikaturik, eta orain, badator beste lehendakari bat. Gauza berriak egingo ditu, aro berri bat dator, jauzi bat aurrera egingo duena. Nik uste dut nire lana egin dudala, eta gizarte mugimenduetan aldaketa hauek gertatzea oso onuragarria dela esango nuke. Pertsonen osatutako erakunde bat da, eta, nire ustez, ezin da egonkortu pertsona bat, ez delako ona.

(Elkarrizketaren bideoa mugikorren bidez aplikazioan)



Virginia Sagarduy

Hareek denporak!

Durango Rugby Taldea: 30 urteko ibilbidearen hasiera

Durango Rugby Taldeko emakumeen taldeak 30 urte egin ditu aurtun. Aste honetako argazkia 1989koa da, hasiera hartan taldea osatu zuten jokalariena. Goretti Etxegibel izan zen talde haren lehenengo entrenatzailea. Jokalari ere aritu zen. Etxegibelek Madrilen ikasten zebilela deskubritu zuen errugbia. Durangora bueltan, su txikitzen sortzen ari zen taldearen berri izan

eta bertara batzea erabaki zuen. 15etik 17 urtera bitarteko 20 bat jokalarigaz hasi zuten lehenengo denboraldia. "Orduan dena ikasteko geneukan", gogoratu du Goretti Etxegibelek.

Urteurrena ospatzeko, 30 urte hauetan taldeko jokalariei izan diren beterenen topaketa egin zuten joan zen asteburuan, eta euren arteko partidu bat jokatu zuten Arripausuetan.

Durangaldea asteen

Sanfaustoei begira autodefentsa eta jai parekideak lantzeko tailerrak, Durangon

Durango I Tailer horietako bat mutilei zuzendua egongo da, eta jai parekideak nola landu daitezkeen azalduko dute bertan. 15etik 26 urtera bitarteko mutilei zuzenduta dago. Urriaren 1ean izango da eta Andragunean eskainiko dute.

Bestalde, emakumeek autodefentsa feminista lantzeko ikastaroa izango dute eskura. Ez dago adin mugarik ikastaroan parte hartzeko. Ikastaroa egun bikoia izango da. Urriaren 2an eta 3an eskainiko dute.

Gau oso batez mendian galduta egon eta gero, onik agertu da gazte berriztarra

Berriz I Arantzazuko santutegiaren inguruetan agertu da eguaztenetik herrian falta zen gazte berriztarra, onik. Senide batek haren desagerpenaren abisua eman zion Ertzaintzari, eta honek bilaketari ekin zion. Gaztearen autoa Arantzazuko santutegiko aparkalekuan aurkitu, eta Ertzaintzak mendi erreskaterako operazioa martxan ipini zuen. Eguen eguerdian agertu zen gaztea, onik.

Egun osoko egitarauaz, Artzai Eguna ospatuko dute irailaren 28an Axpen

Atxondo I Latxa eta Karrantzar Arrazetako Ardi Hazleen Elkarrekin (ACOL) antolatuta, Artzain Eguna ospatuko dute zapatuan Axpen. 11:00etatik aurrera gazta eta sagardo dastaketak egongo dira, baita elkarteko ardi eta aharien erakusketa ere. 12:30ean, berriz, ardi-txakur lehiaketa eta ardi-mozte erakusketa egingo dituzte.



Durango, Elorriko, Izurtzako eta Mañariko udalek bat egin dute osasun arloko eskaeretan

Durangaldea I Eguen goizean lau herrietako alkateak batzartu ziren, aurrerantzean "elkarlanean" aritzeko helburuz. Durangaldean 24 orduko pediatria zerbitzua, erreanimazio kardiobaskularra eta ambulanzia

medikalizatua lortzea da helburua. Eskualdeko alkate guztiak zeuden deituta batzarrera, eta falta zirenei hurrengoan batzeko egin diete deia. Bide batez, Durangaldean pediatria zerbitzua behar duten 12.000 ume

daudela eta noizbait herritarren bati ezbehar bat gertatuz gero "gertuen dagoen ambulanzia medikalizatu bakarra" Gernikan dagoela esan dute. 10.000 biztanleko eskualde batentzat, egoera "kezagarria" dela diote.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA · Izen-abizenak · telefonoa · helbidea · Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

katerin ardoak
iñaki uribe

25^{ente}
Saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetak menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

A. Urreta podólogo

R.P.S. 214/06

Podinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

"Pausoz pauso betetzen ari gara gobernu talde honek hauteskundeetan hartutako konpromisoak"

Hiru hilabete pasatu dira EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak osatutako gobernu martxan ipini zenetik

Hauteskundeek aldaketa ekarri zuten Durangoko Udalera. 40 urteko agintaritza jeltzalearen ondoren, ezkerreko politikak lantzeko aukera dugu. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak osatutako gobernu talde berria buru-belarri dabil herritarrek kezkatzen dituzten gaiak lantzen. Hiru hilabete daramatzate Durangoko Udala kudeatzen, eta dagoeneko hainbat aurrerapauso eman dituzte. "Pausoz pauso betetzen ari gara gobernu talde honek hauteskundeetan hartutako konpromisoak", azaldu du Ima Garrastatxu alkateak.

Herritarrei zuzenean eragiten dieten hainbat gai dituzte mahai gainean. "Durangoko airearen kalitatea herritarren kezkarik handienetarikoa bat da. 24 orduko larrialdietako pediatria zerbitzua ere ezinbestekotzat jotzen dugu.

Bestalde, zaborrontzien kokapenean sortu diren kexei erantzun gura diegu. Beste gaietariko bat udaltzaingoaren zerbitzua da", azaldu du gobernu taldeak.

Gobernu talde berria buru-belarri dabil herritarrek kezkatzen dituzten gaiak lantzen

Geltokiko proiektua

Tren geltokian libre geratu diren lurretan zein proiektu garatu Durangoren etorkizunerako oinarritzakoa izango da. Gai hori ere lantzen ari da udala. Erabaki plataformagaz laster bilduko dira herri galdeketeri buruz berba egiteko.



Hatsa nondik datorren aztertzeke neurgailuak, Kurutziagan eta Aramotzen

Sistema mugikorrek ipini dituzte, kiratsa detektatzerakoan haren sorgunea zein den jakin ahal izateko



Durangoko Udalak ikerketa bat abiarazi du asteon, azken urteetan udalerrian izandako hatsaren iturriak ezagutzeko. Ikerketak hiru hilabeteko iraupena izango

du, eta, beraz, urte amaierara arte egingo dituzte azterketak. Astelehenean, airearen kalitatea aztertzeke neurgailuak ipini zituzten, Aramotzen eta Kurutziagan.

"Ohiko fundizio edo paper-fabrikako hatsetik haratago doan ikerketa da. Badakigu zein den usain hauen sorlekua, eta, beraz, beste hatsaren jatorria aurkitu gura du-

gu, organiko-zabor-ustelarena", adierazi dute gobernu taldekoek. Ikerketak arrakasta izan dezan, udalak ezinbestekotzat jo du herritarren laguntza. Horrega-

tik, gonbita egin diete ikerketa honetan parte hartzeko. Udala hartu-emanetan ipini da hainbat herritarrekin, aurretiaz horrelako gertakarien berri eman dutenekin, hain zuzen ere. Hala ere, ikerketan parte hartzeko proposamena herritar guztiei zabaltzeko helburuagaz, durangarrek Bulego Teknikora mezu bat bidaltzeko aukera izango dute: bulegoteknikoa@durango.eus, Horrela, ikerketan parte hartzen dutenen zerrendan gehituko dira.

"Organiko-zabor-ustel hatsaren jatorria aurkitu gura dugu", adierazi dute gobernu taldekoek

Hatsa dagoen abisua jasotzerakoan, neurgailuak martxan ipiniko dituzte. Datu horiek guztiak izanda, inguruko enpresetan konposatu hauekin lan egiten duten aztertuko da, haizearen norantza eta konposatuaren arteko kontrastea eginda, kiratsa zein enpresatik datorren kalkulatzeko.

▶ UDALTZAINAK KALEAN



Gertukoa izatea, kalean ikustea. Horixe da Durangoko udaltzaingoaren ildo. Kalean herritarrengandik hurbil egotea gura dute. Abuztuaren 1etik hona, Durangoko Udalak udaltzainburu berria du: Amaia Frontaura. Eskarmentu handiko profesionala da. Hamarkada biko esperientzia du Frontaurak. Durangora

heldu aurretik, Bilbon hamazazpi urtean egon da udaltzain eta lehen udaltzain lez. Beste hiru urte Arrasaten egin ditu, ofizial eta azpi-ofizial. Udaltzaingo gertu eta irekiago bat izatea gura du Frontaurak, enpatiaduna, Durangoko herritarrek hainbeste baloratzen eta eskatzen duten horixe, hain zuzen ere.

▶ UDALEKO ATEAK ZABALIK



Ima Garrastatxu Durangoko alkatea herritarrekin biltzen hasi da, durangarren kezkak ezagutu eta ahal den kasuetan irtenbideak bilatzeko. Dagoeneko hainbat norbanakok, elkartek eta eragilek egin dituzte batzarrak alkateagaz. Beraz, ekimen honek harrera ezin hobea izan du. Hitzordua HAZen bitartez ipini dai-

teke. Martitzen eta eguenetan, goizean 08:00etatik 11:00etara eta arratsaldean 16:00etatik 19:00etara. Abenduaren hasierara arteko agenda beteta du alkateak. Horregatik, urri-azaroan, Herrigintza, Antolaketa eta Lurralde batzordeetako arduradunak ere hasiko dira biltzen herritarrekin.

▶ ZABORREN KUDEAKETA HOBETUZ



Aurreko legegintzaldiaren amaieran, Durangoko Udalak zaborraren kudeaketaren kontratu berria sinatu zuen. Harrezkero, kudeaketa horrek hainbat kezka sortu ditu herritarren artean. Udalak herritarren keza ugari jaso ditu zaborrontzien kokapenaren inguruan. Gobernu taldea kezka horiei erantzuten

eta irtenbideak aurkitzen ahalegindu da. Orain aste bi, batzar bat egin zuten herritarren eta auzo elkarten ekarpenak jasotzeko. Bestalde, Alde Zaharrea sistema berezia ipiniko dute martxan. Hurrengo egunetan, auzotar eta merkatariekin batzartuko dira, proiektua azaldu eta gutzien artean erabakiak hartzeko.

▶ PEDIATRIA 24H ETA ANBULANTZIA DURANGON



Durangoko udalbatzak Pediatria 24H plataformaren mozioa onartu zuen. Plataformako kideek diotenez, eskualdean 12.500 ume bizi dira, eta 17:00etatik aurrera larrialdi bat edukiz gero Gurutzetaraino joan beharra dute, Galdakaon pediatria zerbitzurik ez dagoelako. Pediatriaz gainera, an-

bulantzia medikalizatu bat eta bihotz-biriken erreanimazio zerbitzu bat ipintzea ere aztertu gura dute, Eusko Jaurlaritzara eskaera bateratua helarazteko. Gaia eskualde mailakoa dela ulertuta, Durangoko Udalak Durangaldeko gainerako udaletako agintariek batzarra egin zuen atzo.



'Julietas, Romeo Circo'

ANTZERKIA
DURANGO :: Irailak 28

Gaztetasunetik heldutasunera bidaiak

Markeliñek literaturako klasiko bat erabiliko du berriro ere lan berri-tzaile eta garaikidea aurkezteko: *Romeo eta Julieta*. Komediatik dramara doan bidea egingo dute, gaztetasunetik heldutasunerako bidaiak, zirkua-ren eta antzerkiaren lengoaien bitartez. Romeo eta Julieta narratzaileak airera botatzen dituen kapela bi dira. Hortik abiatuta, bost antzezlek horien istorioa kontatuko dute. San Agustin kulturgunean, 20:00etan.

Irailaren 27an

BERRIZ Okangoko jaiak Donien Atxa jartzea eta txapligoak, 19:00etan. Ondoren, odoloste jana eta bolo txapelketa.

IURRETA sanmigelak Herriko nagusien bazkaria, 14:00etan. Jarraian, musika Uribealgotz. **Mikel Deuna pilota txapelketa**, 18:00etan, Olaburu frontoian. Olaburu pilota taldeak antolatuta. **'El burlador sin sardina'**, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Anderebidek antolatuta. **DJ-a** IU Gazte egitasmoaren eskutik, 19:00etan, Askondon. **Korapiloak askatzeko unea da (Iurretako Sare)**, 19:30ean, Dantzarin.

MALLABIA musika Napardeath, 20:00etan, Kontzejzarrean.

Irailaren 28an

ABADIÑO Iturritxo kaleko jaiak Ginkana eta puzgarriak, 12:00etan. **Abadiñoko musikarien kontzertua**, 13:00etan. **Maleta siku**, 14:00etan. **Mus txapelketa**, 16:00etan. **Ugasio txapelketa**, 19:00etan. **Parrilada (sardinak eta hirugiharra)**, 19:30ean. Ondoren, **Dj Tijuana**.

BERRIZ Okangoko jaiak Umeen jolasak, 17:00etan. **Txirindulari lasterketa herrikoia**, 18:00etan. **Kontzertua**, 20:00etan: Jon Basagurenek *Dena oskol* diskoa aurkeztuko du.

DURANGO jaia Uda amaiera jaia, 19:00etan, Oiz kalean (errekaren alboan). Sardina jana eta mariatxien emanaldia. Auzo Alai Madalenako auzo elkarteak antolatuta.

IURRETA sanmigelak Montoitik txapligoak, 12:00etan. **Presoen eskubideen aldeko kontzentrazioa eta brindisa**, 12:05ean, Iurretako Sarek antolatuta. Ondoren, **kalejira dultzainero, erraldoi eta buru handiek alaituta**. **Paella txapelketa eta bazkaria**, 12:30ean, Etxegon. Atsedenerako tarte hartuko dute musikagaz, 15:00etan, eta, 16:00etan, altxorraren bila edo gynkana hasiko dute. IU Gaztek antolatuta. **Gazte bazkaria**, 14:30ean, plazan. Gazte Asanbladak antolatuta. **Ohiturazko Doniel Atxa altxatzea**, 18:00etan, plazan. Jarraian, **dantzarien azken entsegua**. **Erromeria: Luhartz**, 21:00etan, plazan. Gero, **DJ Ainhoa**. **Gorazarrea Rocio Durcal**, 22:00etan, Askondoko aterpean.

Irailaren 29an

BERRIZ Okangoko jaiak 'Berrizko baselizetatik' XXV. Oinezko Ibilaldia. Ibilbide luzea egiteko (24 km), 07:30etan. Ibilbide laburra egiteko (14 km), 09:00etan. **Auzoko hildakoen omenez meza**, 12:00etan. Ondoren, Iremiñe dantza taldearen saioa eta bertsolariak: Alaia Martin, Iruri Altzerreka eta Miren Amuriza.

IURRETA sanmigelak Dantzari eta Agintarien kalejira, 11:00etan, Montoitik plazara. 11:30ean meza. **Dantzariak**, 12:30ean. **Dantza kantu poteoa: Kantarelux**, 13:30ean, plazan. **Pirritx, Porrotx eta Marimotots**, 17:00etan. **Dantzari Dantza eta neskek egindako Soka dantza**, 19:00etan. **Eidabe Gora Kasete!**, 20:00etan, Askondon. **Erromeria: Errebal**, 21:00etan, plazan.

Irailaren 30ean

IURRETA sanmigelak Joko tradizionalak ume, gazte eta helduentzat, 17:00etatik 20:00etara, plazan (euria bada Askondon egingo da).

Urriaren 3an

IURRETA sanmigelak Bingo tonbola, 18:00etan, Askondon. Jarraian, txokolatada.



'El burlador sin sardina'

ANTZERKIA
IURRETA :: Irailak 27

Tirso de Molinaren *El burlador de Sevilla* lanaren egokitzapen honek maitasunaz eta maite-jokoez berba egiten du. Ikuskizun dinamiko eta musikala da Pasadas las 4 antzerki taldeak Iurretan erakutsiko duena. Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

'Y todo por amor'

Arriola antzokian

ANTZERKIA • *Y todo por amor* obrak bidaia bat egin gura du ikusleekin zirraren zurrunbiloan zehar, eta publikoaren konplizitatea bilatuko du zenbait gai kaotikotan: maitemintzea, aditu ezina, rol sozialak edo itxaropen txikiak. Horretarako, 7 Grados konpainiak eszena joakoak eta errezitaldiak erabiliko ditu. Elorrrion, gaur, 20:30ean.



Abenduko agenda



27	<p>Aitte San Migel Jaiak</p> <p>14:00 Herriko Nagusien bazkaria, jarraian musika Uribesalgogaz</p> <p>18:00 Pilota partiduak. Mikel Deuna txapelketan</p> <p>19:00 Antzerkia Ibarretxe Kultur Etxean "El burlador sin sardinas"</p> <p>19:00 DJa Askondon (IU gazte)</p>
28	<p>"SAN MIGEL BEZPERA"</p> <p>12:00 Montoitik txapliagoak</p> <p>12:05 Presoen eskubideen aldeko kontzentrazioa eta brindisa. Ondoren, kalejira dultzainero, erraldoi eta buru handiek alaiturik.</p> <p>12:30 Paella txapelketa eta bazkaria</p> <p>14:30 Gazte bazkaria Plazan</p> <p>15:00 Atsedenarako tartea Etxego inguruan musikagaz</p> <p>16:00 Altxorraren bila edo gynkana Etxego-Plaza inguruan</p> <p>18:00 Ohiturazko Doniel-Atxa jasotzea. Jarraian, dantzarien azken entsegua</p> <p>21:00 Erromeria Luhatz taldeagaz. Ondoren, DJ Ainhoa</p> <p>22:00 "Rocio Durcal" Gorazarrea. Askondo</p>
29	<p>"SAN MIGEL EGUNA"</p> <p>11:00 Dantzari eta agintarien kalejira Montoitik Plazara</p> <p>11:00 Meza nagusia</p> <p>11:00 Dantzariak</p> <p>11:00 Dantza kantu poteoa Kantarelux taldeagaz</p>

Urriaren 4an

ABADIÑO musika
Mikel Urdangarinek
'Margolaria' diskoa
eskainiko du, 19:00etan, Gerediagako foru zelaian. Aurretik, **Durungaldeko ipuinen irakurraldi laburra**, Jesus eta Tere Eguzkitza neba-arreba arrazolarren eskutik. Gerediaga elkarteak antolatu du ekitaldia, Ondarearen Europako Jardunaldien barruan.

IURRETA sanmigelak
Graffiti erakusketa eta tailerra, 17:00etan, Bixente Kapanaga kalean.
Tortilla txapelketa, 18:00etan (aurkezpena, 20:00etan), plazan. Gazte Asanbladak antolatuta.
Ghanako txaranga, 18:00etan.
Anderebide elkartearen batzarra 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Urriaren 6ra arte

DURANGO erakusketa
Carmen Soldevilla & Rosa Etxabe. Ezkurdi aretoan. Durungaldeko Artista Elkarteak antolatuta.

IURRETA erakusketa
'Iurretak udalerrri izatea eskuratu ondorengo lehenengo sanmigelak', Oreka tabernan. 10 argazkik osatzen dute erakusketa eta jaiak iraun bitartean egongo da zabalik.



'Agur Etxebeste!' filma Durango eta Zornotzako zinemetan emango dute

Urriaren 13ra arte

ELORRIO erakusketa
Argiñetako indusketan aurkitutako Azenari piezaren erakusketa ikusteko gonbidapenak. Udalak Arkeologi Museora joatera gonbidatu ditu elorriarrak. Gonbidapenak Iturri kultur etxean edo Turismo bulegoan jaso daitezke. Gogoratu dute bisita gidatuak egongo direla, urriaren 5ean, 6an eta 13an (euskaraz eta gaztelaniaz). Bisitarako erreserba egiteko, 94 404 09 90 telefono zenbakira deitu behar da.

Urriaren 27ra arte

DURANGO erakusketa
'Kartzela eta erbestea' (José Manaut Viugliettiren lanak). Arte eta Historia Museon.

Zinema

:: Durango ZUGAZA
• **Mientras dure la guerra**
barikua 27: 19:30/22:00
zapateria 28: 17:30/20:00/22:30
domeka 29: 18:00/20:30
astelehena 30: 18:30/21:00
martitena 1: 20:00
eguztana 2: 20:00

• **Agur Etxebeste!**
barikua 27: 19:30/22:00
zapateria 28: 17:30/20:00/22:30
domeka 29: 18:00/20:30
astelehena 30: 18:30/21:00
martitena 1: 20:00
eguztana 2: 20:00

• **Hasta siempre hijo mío**
barikua 27: 19:30
zapateria 28: 18:15/21:30
domeka 29: 19:00
astelehena 30: 18:30
martitena 1: 19:30
eguztana 2: 19:30
• **Manou**
zapateria 28: 16:30
domeka 29: 17:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Toy Story 4**
domeka 29: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **Agur Etxebeste!**
barikua 27: 20:15
zapateria 28: 19:30/22:00
domeka 29: 20:00
astelehena 30: 20:15
• **Manou**
zapateria 28: 17:00

CINE INVISIBLE 11

FESTIVAL INTERNACIONAL
FILM SOZIALAK 2019 BILBAO



www.kcd-ongd.org



Film Sozialak zinema jaialdiko lanak Elorrrion

ZINEMA | Film Sozialak zinema ikusezinaren Bilboko jaialdiaren hamaikagarren ekitaldiak 34 herrialdeetako 74 film ikusteko aukera eskainiko du aurtengo ekitaldian. Jaialdi horretan sailkatutako film horietako hamaika Elorrioko Arriola antzokian emango dituzte datozen egunetan. Bihar izango da lehenengo emanaldia, 22:00etan. Domekan eta astelehenean izango dira hurrengo saio biak, 20:00etan.

Bilboko zinema jaialdi honen bide komertzialetik kanpora dauden lanei atek zabaltzen dizkie, eta honako kategoriatan hauek banatu dituzte aurretik: Giza eskubideak, Garapen iraunkorra, Genero ekitate eta Kulturartekotasuna. Zine soziala gustuko dutenek hitzordu paregabea dute Elorrrion.

Irailaren 28an

- 'En boca de todas' (4')
- 'Birthplace' (5')
- 'Victoria' (8')
- 'Donde nos lleve el viento' (21')
- 'En busca de un espacio' (52')

Irailaren 29an

- 'Timbó' (9')
- 'Laatash' (14')
- 'Oyentes' (14')
- 'White' (15')
- 'Skin' (21')
- 'Wantoks: Dance of Resilience in Melanesia' (20')

Irailaren 30ean

- 'Aralar' (85')

“Ekoizlearen erronka nagusia interes artistikoaren eta interes komertzialaren arteko koherentzia lortzea da”

Azaroaren 15ean estreinatuko den Rodrigo Sorogoyenen 'Madre' pelikulan lanean aritu da Ander Sagardoy durangarra azkenengo hileetan



Ander Sagardoy Mujika

Zinema ekoizlea
Durango | 1994

eta ekoizpena bideratutako kurtso espezifikoak da. Zine industriaren konplexutasun eta zirrikituak ezagutzeaz gainera, lezio nagusia pelikula batek aurpegi banaezin bi dituela ulertzea dela esango nuke: interes artistikoarena eta interes komertzialarena. Hauek banaezinak dira, eta, ekoizle legez, ezin daiteke ahaztu batean zentratuta zaudenean bestea duzula atzean. Nahiko ebidenteak dirudi, baina proiektuan murgilduta zaudenean, erraza da perspektiba hori galtzea. Esango nuke alde bi hauen arteko oreka eta koherentzia lortu eta bide osoan zehar mantentzea dela ekoizlearen erronka nagusia.

Alde horretatik, oso baliagarria izan da zenbait profesionalengandik eskolak jasotzea. Zuzendariak, gidoilariak, ekoizleak, banatzaileak... denek azaldu digute zeintzuk diren euren ardurak, beharizanak eta abar, euren perspektiba eta interesetatik.

'Madre' azaroan estreinatuko da. Bertan lan egin duzu? Honi buruzko lana egin zenuen master amaierarako, ezta?

Halaxe da. Rodrigo Sorogoyenen *Madre* film luze berrian murgiltzeko aukera izan dut, masterrean lehenik, eta profesionalki ondoren. Azken Oscar sarietan nominatuta izan zen izen bereko film laburrean oinarrituta dago eta azaroaren 15ean estreinatuko da zinemetan.

Kasualitate polita izan da, izan ere, masterrean zehar Sandra Tapia ezagutu nuen, Arcadia Motion Pictures-eko ekoizletariko bat, eta kurtsoa amaitu eta gero, euren taldera batzeko eskaini zidan. Orain aste bi, *Madre* Venezian aurkeztu genuen, eta oso harrera polita izan du.

Zein proiektu duzu orain esku artean?

Aipatutako *Madre*ren estreinaldiaz gainera, datorren urterako *La maldición del guapo* komedia espainiar-argentinarra estreinatuko dugu eta, dena ondo badoa, hiru film luze berriren grabaketei ekingo diegu 2020an zehar. Horietariko bat euskaraz izango da eta Euskal Herrian grabatuko da.

ZINEMA • ARITZ MALDONADO

Ander Sagardoy durangarrak Film Business masterra ikasi du Bartzelonako zinema eskolan, eta orain Arcadia Motion Pictures ekoizte-txean lanean dabil. Rodrigo Sorogoyenen 'Madre' pelikulan parte hartu du eta hainbat proiektu gehiago ditu esku artean 2020rako. Oscar sarietan nominatuta egon zen izen bereko film laburrean oinarrituta dago 'Madre'. Azaroan helduko da zinemetara.

Zelan doa Arcadia Motion Pictureseko esperientzia? Zertan datza zure lana?

Hiru hilabete dira bertan hasi nintzela eta, egia esan, oso pozik

nago esperientzia berriagaz. Denbora gutxi daramadan arren, oso momentu politean sartu naizela uste dut; oso erronka interesgarriak daude, eta Arcadiak 15 urte baino gehiago daramatzen arren

“Gidoi baten eskubideak erostea erabakitzen denetik pelikula estreinatzen den arte 2 edo 3 urte pasatu daitezke”

pelikulak ekoizten, talde gaztea du eta ilusio handiagaz hartzen dute proiektu berri bakoitza.

Gure eginkizun nagusia, asko sinplifikatuta, pelikula bat aurrera ateratzea da: ekonomikoki, behar diren finantzaketa iturriak bilatuz eta, honen arabera, proiektuak behar duen talde tekniko eta artistikorik egokiena eratuz. Bizkor esaten da, baina, normalean, gidoi baten eskubideak erostea erabakitzen denetik pelikula estreinatzen den arte, bi edo hiru urte erraz pasatu daitezke. Prozesu luze eta konplexua da, eta ekoizlea da denbora tarte horretan sortu daitezkeen arazo eta ezustekoen erantzule nagusia.

“2020an hiru grabaketei ekingo diegu; horietariko bat euskaraz izango da eta Euskal Herrian grabatuko da”

Bartzelonan, Escola Superior de Cinema i Audiovisuals de Catalunya ikasi duzu masterra. Zein zehazki? Zelan joan da?

Film Business masterra ikasi dut, urtariletik ekainera bitartean,

Osasun gida

anboto

Ginekologia

PSE: 93/18

mam ginekologia zentroa

Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU

674 322 360

Fisioterapia

PSE: 119/13

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia

PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Fisioterapia

PSE: 155/17



HOBETU

Fisioterapia & Podología

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

Podologia

PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO

Podologia
klinika

Goiatz Murua
kol. zbk. 147

Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238

Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefonoa: 946203630

Monago Torre 4, behea 48200 durango

Odontologia

PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}
DURANGO

Tel.: 946 819 951

Mug.: 717 194 454

uecdental@gmail.com

Odontologia

PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika

PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaedurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia

PSE: 62/11



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

• Antsietatea, estresa, fobiak
• Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Optometria

PSE: 162/13

keinu optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometriar teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

Pedagogia


PSE: 63/63

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**

Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Zornotza Aretoak Glu Glu konpainiaren 'Marierrauskin' antzezlanagaz ekingo dio denboraldi berriari

Urriaren 5ean izango da emanaldia, 18:00etan; obra euskaraz da eta Maite Zalduegik zuzendu du

ANTZERKIA • A.M.

Zornotza Aretoak familia osoarentzako ikuskizun batez ekingo dio ikasturte berriari. *Mari Errauskin* ipuin klasikoaren moldaketa da honakoa. Glu Gluk printzesen ipuina irauli gura izan du antzezlan honez, umeen arteko harremanez berba egiteko. "Eskoletan eta umeen artean gehiegikeriak gertatzean mutu ez geratzea zein garrantzitsua den azpimarratu gura dugu", dio-

'Mari Errauskin' ipuin klasikoaren moldaketa da eta umeen arteko elkartzuna du ardatz

te konpainiakoeak. "Gaur egungo ume harroa *Mari Errauskin*eko protagonistak bizitako sufrikario eta zigorren lekuan ipiniko dugu; ezinbestekoa da bestearen lekuan ipintzea, sufritzen dabilenaren lekuan, eraso zulo horretatik ateratzen laguntzeko".

Galder Perezek egin du obra klasikoaren adaptazioa, eta Maitane Zalduegik zuzendu du. Aktore lanak Itxaso Quintanak, Andrea Covadongak, Sara Barroetak, Jon Casamayorrek, Ugaitz Alegriak eta Iñaki Marurik egingo dituzte.

Hiru zinema ziklo

Udako atsedendia igarota, Zornotza Aretoaren eskaintza biderkatu egingo da. Azken urteetan ohiko bihurtu diren zine zikloak egingo dira; Kine zineklubak hiru ziklo egingo ditu oraingoan, eta bede-

ratzi pelikula eskainiko dituzte bertan. Horrez gainera, aurten musika ardatz izango duten Europako Ondarearen jardunaldien barruan, abesbatzak, musika bandak eta pop eta rock taldeek eginiko bertsoak bilduko dituzte.



Glu-Glu konpainiako kideak, Zornotzako hainbat ordezkariagaz.

Gerediagak zazpi proposamen dakartza Ondarearen Europako Jardunaldietarako

Urriaren 4an hasita, hilaren 27ra arte iraungo du ekitaldiak; asteburuetan izango dira



Mikel Urdangarin eta taldekideak.

MUSIKA • A.M.

Gerediaga elkarteak zazpi proposamen prestatu ditu Bizkaian antolatzen diren Ondarearen Europako Jardunaldietarako. Musika da jardunaldien ardatza; kontzertuak, tailerrak eta eraskusketak egongo dira, besteak beste, urriko asteburuetan zehar. Ekitaldiak doakoak izango dira, baina aurretik izena eman beharko da.

Ipuin irakurketa eta musika

2019ko egitarauari hasiera emateko, Arrazolako Jesus eta Tere Eguskitza neba-arrebek eskualdeko ipuinen irakurketa egingo dute Gerediagan. Ondoren, Mikel Urdangarinnek kontzertua eskainiko du, taldeagaz batera.

Gai librea

Ainhoa Urien Telletxea
Ikaslea



Performance egokia

Terrorismo kulinarioak gora egin du nabarmen. Txapa gainean goiz osoan egositako garbantzuek nazkatu gaituzte, eta negozio nazkagarriek jaten ematen diegu beraiek gure sabelak janari higuin garrit betetzearen truke. Durangaldean baditugu, gutxienez, janari azkarra, langileen esplotazioa eta euskararen desagertzea bultzatzen dituzten enpresa bi. Protesta sutsuak izan ziren proiektu horiek gerrarazteko, baina biak ala biak ireki zituzten azkenean, eta ezin esan arrakastarik izan ez dutenik.

Jatetxe horietako batean, Abadiñoko McDonalds-en, osten saiatu da pertsona bat azken astean. Albisteak ez du oihartzun gehiegirik eduki, notizia bat prentsan, tabernako terrazetako elkarrizketa gaia eta espekulazioen bat edo beste. Eta aitortuko dizuet, pena dut oihartzun gehiagorik izan ez duelako, azkenean, lapurreta izatera ere iritsi ez den saiakera batean gelditu delako. Izan ere esperantza txikitxo bat izan nuen, zuri ere igual sortuko zitzaizuna. Desiratu nuen izan zedila inguruko abeltzain bat bere balioaren aldarria oihukatzen, antikapitalista porrokatu bat *autonoma* bat egiten, edo antiespezista bat mundua irauli guran. Finean, izan zedila sabotajezko ekintza ia poetiko bat, zabaltzeko orduan egon ziren protesten jarraipen bat.

Dena dela, lapur soil bat izateak ere badu bere poesia puntua. Dirua nahi eta kapitalismoaren altzora hurreratu, labanaz sabela ziztatzeko prest. Aukeraketa kontzienteki egin zein ez, herriko fruta-dendan lapurtzea baino hobea da.

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1# **BASA**
Miren Amuriza (Elkar)

2# **HEZUREN ERRETURA**
Miren Agur Meabe (Susa)

3# **Sapiens**
Yuval Noah Harari (Elkar)

CERAMICAS
MACOBER

ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO Tel.: 946 811 727

Zure iragarkia jarri nahi duzu?

publizitatea@anboto.org
94 621 79 02

anboto komunikabideak

Animatu gure Haurreskoletako partaide izaten HAURRESKOLETAN HAURREN ONGIZATEA HELBURU



TRAÑA-MATIENA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
Trañaetxoste, 10 ABADIÑO
Tel.: 946 202 166
tranamatiena.abadino@haurreskolak.eus



ZELAIETA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
San Trokaz enparantza, 7 ABADIÑO
Tel.: 946 200 672
zelaieta.abadino@haurreskolak.eus



ATXONDOKO HAURRESKOLA
Foruen plaza, 7 ATXONDO
Tel.: 946 859 002
atxondo.atxondo@haurreskolak.eus



EGUZKILORE

BERRIZKO HAURRESKOLA
Margarita Maturana, 4 BERRIZ
Tel.: 946 826 339
eguzkilore.berriz@haurreskolak.eus



JULENE AZPEITIA

DURANGOKO HAURRESKOLA
San Roke, 4 - behea DURANGO
Tel.: 946 203 516
julene.durango@haurreskolak.eus



ELORRIOKO HAURRESKOLA
Goieta, 62 ELORRIO
Tel.: 946 584 907
elorrio.elorrio@haurreskolak.eus



ETORKIZUNA

IURRETAKO HAURRESKOLA
Olaburu, 5 IURRETA
Tel.: 946 200 937
iurreta.iurreta@haurreskolak.eus



INTXAURTI

MALLABIKO HAURRESKOLA
Intxaurti, 12 - behea MALLABIA
Tel.: 943 172 003
intxaurti.mallabia@haurreskolak.eus



MAÑARIKO HAURRESKOLA
Herriko Plaza, 2 MAÑARIA
Tel.: 946 218 308
manaria.manaria@haurreskolak.eus



ZALDIBARKO HAURRESKOLA
Autonomia kalea, ZALDIBAR
Tel.: 946 824 497
zalduzubieta.zaldibar@haurreskolak.eus



ZORNOTZAKO HAURRESKOLA
Larrea auzoa, z/g AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 346
zornotza.amorebieta@haurreskolak.eus

**MATRIKULAZIO
DATAK**
Urriak 1etik
9ra

“Gurasoak joan zirenean pentsatu nuen: zer egiten dut nik hemen bakarrik?”

Gazte-gazterik klub garrantzitsu askoren orbitan egon da Jon Aldekoa-Otalora. 14 urtegez Bartzelonako Juventud taldera joan zen, esaterako. Orain, 19 urterekin, Zornotza Saskibalo Taldera batu da Zilarrezko Ligan lehiatzeko



Jon Aldekoa-Otalora
Azkarate
Zornotza Saskibalo Taldeko jokalaria
Durango | 2000

zure etxetik eta familiarengandik aldentzea?

Oso gogorra egin zitzaidan. Juventudera batzeko aukera sortu zenean, egiten zidan ilusioagaz, berehala esan nuen baietz. Gurasoek denean babestu ninduten, baldintza batez: ikasketekin jarraitzea. Bada, joan nintzen hara eta heldu zen gurasoak agurtzeko ordua. Atea itxi zenean, bakarrik geratu nintzenean, pentsatu nuen: "Zer egiten dut nik hemen bakarrik?". Errutinaren aurkitu nuen irtenbidea: ikasketetan eta entrenamenduetan zentratu nintzen. Errutina lagungarria da. **Umetatik talde handien orbitan egon zara. Besteek zugan ipinitako**

“**Oraindino asko dut ikasteko. Esperientziak ematen duen malezia hori falta zait, esaterako**”

SASKIBALOA • JOSEBA DERTEANO
Zornotza Saskibalo Taldeak garaipen batez hasi zuen Zilarrezko Ligako denboraldia, joan zen asteburuan. Partidu hartan debutatu zuten fitxaketen artean, Jon Aldekoa-Otalora dago, 19 urteko durangarra. Gaztea den arren, talde askotan jokatu du. ACB ligako klub batek baino gehiagok ipini izan dute begia promesa gaztearengan.

Gazte-gaztea zara, baina veterano baten ibilbidea duzu. Non ibili zara Zornotzan amaitu aurretik?

Tabirako-Baquen hezi nintzen. 13 urte nituela, Real Madrilen deia jaso nuen eta minikopa antzeko torneotara gonbidatzen ninduen. Hurrengo urtean, oraindino Tabirakon, hautu bat egin behar izan nuen

nigan interesa zutenen artean, eta Juventud taldearen eskaintza onartu nuen. Urte bi eman nituen han. 16 urtegez, Fuenlabardara joan nintzen, eskaini zidatena interesgarria iruditu zitzaidalako. Iaz, Bilbao Basketera batu nintzen. Orduan, Urrezko Ligan zebilen. Eurekin entrenatzen nintzen eta pare bat partidutan ere jokatu nuen. Sarritan, Bilbao Basketi lotuta dagoen Santurtzi taldeagaz jokatzeko nuen. Handik etorri naiz Zornotzara.

Zelan joan zen iazko urtea?

Tira, Bilbao Basketen bitartez hiru jokalaririk geunden Santurtzian, eta, egia esanda, agindu zigutena baino minutu gutxiago izan genituen.

Zelan heldu zinen Zornotzara?

Bilbao Basketegaz berba egin nuen.

Lehenengo taldeagaz entrenatzea eta nazional mailakoagaz jokatzeko eskaini zidaten. Apur bat gorago egoteko maila nuela uste nuen, edo horren borrokan egon nintzekeela behintzat. Maristetan ikasten nabil, ikasketak amaitu gura ditut eta inguruko talde baten bila hasi nintzen. Zornotzak aukera eskaini dit eta oso pozik nago bertan.

Zelan hartu zaituzte taldean?

Oso ondo hartu naute, bai taldeki-deek, bai Mikel Garitaonandia entrenatzaileak. Oso talde gaztea gara eta horrek ere laguntzen du gure arteko hartu-emanetan.

Bilbao Basketegaz Urrezko Ligan jokatu duen partidu solteak kenduta, normalen EBA mailan aritu izan zara. Denboraldi oso bat Zilarrezko

Ligan aritzea orain arte izan duzun erronkarik gogorrena izango da?

Bai. Orain arte ez dut Zilarrezko Ligako partidu bakar bat ikusi ere egin. Erronka gogorra izango da, badakit, baina gogotsu nago.

Joan zen asteburuan, minutu batzuk jokatu zenituen. Zelan sentitu zinen?

Hasieran, uste nuen baino hobeto eta erosoago sentitu nintzen kan txan izandako momentuetan. Jakina, oraindino asko dut ikasteko. Esaterako, esperientziak ematen duen malezia falta zaidala ikusi nuen: baloia osterako orduan, beti ondo kokatuta egoterakoan... Hor badut zer ikasi.

Juventudera joan zirenean, 14 urte zenituen. Gogorra izan zen

itxaropenak bete beharreko presio-rik sentitu izan duzu?

Ez bereziki. 14 urte nituenean, partiduak lagunartekoak balira bezala hartzen nituen. 16 urtegez desberdina da: "Apuurka geroago eta hobeto jokatu behar dut" eta antzerakoak pentsatzen hasi nintzen. Gero konturatu nintzen gozatzera irten behar nuela kantxara, barruan dudan onena ematera eta kito, etorkizunak zer ekarriko duen pentsatu barik.

Oraintxean zaude behintzat.

Bai, eta eskertzekoa da. Bolada txar bat duzunean, lagunekin geratzea edo gurasoak bertan izatea askoz ere hobea da ordenagailuko pantaila batetik berba egitea baino.



14 urterekin Kataluniara joan zen Aldekoa, Juventud taldera.



Urte bi eman zituen Fuenlabardara taldean.



Iaz, Urrezko Ligan zebilen Bilbao Basket-ekin partidu bi jokatu zituen.

UDAKO 5. ARGAZKI LEHIAKETA

anboto 
komunikabideak

Eman zure botoa udako argazki lehiaketan

Bozkatu www.anboto.org webgunean
Urriaren Ilra arte

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Eskualdeko lau ziklistak Pirinioetako Trans-Nomad proba prestigiotsuan parte hartuko dute mendiko bizikletagaz

Lau etapatan banatuta, 5.800 metroko desnibel positiboari aurre egingo diote Pirinioetako ibilbide gorabeheratsuan



Ezkerretik: Harriet Ibarretxe, Paul Lebeiti, Andoni Larruzea, Mikel Mendizabal eta Igor Garate.

MENDI BIZIKLETA • JOSEBA DERTEANO

Durangaldeko lau ziklistak munduko BTT Enduro probarik prestigiotsuenetarikoa parte hartuko dute urriaren 3tik aurrera. Mikel Mendizabal eta Igor Garate abadiñarrak, Harriet Ibarretxe durangarra eta Paul Lebeiti iurretara dira lau protagonistak. Andoni Larruzea izango da euren mekanikoa.

Erroka ez da nolanhikoa. Lau etapatan banatuta, 150 kilometro egin beharko dituzte Pirinioetako Bielsa herritik abiatuko den ibilbide gorabeheratsuan. Guztira, 5.800 metroko desnibel positiboari aurre egingo diote. Espezialitate horretan dauden munduko ziklistarik onenetarikoak batuko dira bertan.

Mendizabalek eta Garatek bigarrenez parte hartuko dute proba horretan. Ibarretxerentzat eta

Lebeitirentzat, ostera, estreinaldia izango da. "Badakit oso gogorra egingo zaidana. Igo beharreko desnibela itzela da. Baina, tira, proba amaitzea lorpen handia izango da niretzat. Amaitzea eta ondo pasatzea dira helburuak", dio Lebeitik.

Aurreko esperientzia

Iurretarrak badaki antzerako probetan sufritzea zer den. Apirilean, Jon Juaristi abadiñarra eta biak EpicEnduro proban aritu ziren, Europako enduro lasterketarik gogorrenean. Orduan, Montpellier-etik irtenda, 16 ordu eman zituzten bizikletatik jaitsi barik, 5.000 metroko desnibel positiboa zuen ibilbidean. "Esperientzia hori baliagarria izango zait aurretik dugun abenturari begira", uste du ziklista iurretarrak.

Jokaldia

Unai Zamalloa
Zubiaurre
Saskibaloia



Tabirako EBA mailan

Badator 2019-2020 denboraldiaren hasiera gure taldeentzat. Nesken Euskal Kopa Durangon bizi izan dugu, goreneko mailan. Gasteizko Araski taldea izan da txapelduna. Mutiletan, ostera, goreneko maila horretako irabazlea Barakaldon erabaki da aurten lehenengoz, eta Baskoniak Bilbao Basket menderatu zuen. Ametx Zornotza ez zen finalera heldu, Juaristi ISBren aurka finalerdia galduta.

Euskal Kopa honek talde askoren parte hartzea lortzen du, eta, orain, mutiletan EBA mailako finalak izango dira, Arrasaten, asteburu honetan zehar. Hitzordu horrek aurten Tabirako-Baquek izan dezakeen denboraldiaren aurreikuspena egiteko aukera ematen digu.

Azken urteetan lehenengo mailan egon eta gero, Julen Berrocalen taldeak egindako lana oso ona izan da. Bai defentsan, bai erasoan, aurrera egin dute jokalariek, eta batez ere gazteek. Euren osatzen dute aurtengo plantilla. Bi jokalariek berri gehitu dira taldera: Imanol Orue, Zornotzan bi urte maila onean eman ondoren; eta Miguel Zamora, bertan ikasten ari den gazte madrildarra. Honek guztiak bere alde positiboa dauka: taldearen oinarria eta bere jokatzeko era aurretik eratu daude eta indartu egingo dituzte. Alde negatiboa, edo zailtasuna izango dena urtean zehar, EBA mailan urte askotako esperientzia duten talde asko izango direla. Nire ustez, horixe izango da zailena, batez ere denboraldiaren hasieran.

Baina, honen guztiaren aurrean, eta denboraldi hasiera bertan dela, ilusioa da nagusi eta talde honen lanak emaitza ona ekarriko du. Ziur naiz horrela izango dela. Aurrera!

Asteko kirolaria

"Mendi lasterketetan gozatu egiten dut, ez baitago beste kiroltako lehiakortasunik"

Olatz Aizpitarte elorriarrak hirugarren postua lortu zuen IV Goierriko Kopa trail proban

Azaroan urte bi beteko dira Olatz Aizpitarte elorriarra mendian korrika egiten hasi zela. Harrezkero, onenen artean dabil eta horren adibide da, IV Goierriko Kopa trailean, zazpi lasterketak osatzen duten proban, lortu duen hirugarren postua.

Asteburuan, Goierriko Kopa Trail proba hirugarren postuan amaitzea lortu duzu. Pozik lortutakoagaz?

Bai, pozik nago. Zazpi lasterketa izan dira guztira, baina, egia esan, ez zaizkit denak ondo irten. Gainera, azken lasterketan bigarren postua galdu nuen eta hirugarren amaitu nuen. Hala ere, orokorrean, pozik nago emaitzagaz.

Itxarondako emaitza izan da?

Egia esan, ez. Urtarrilean, lagun batzuek kopa egitea erabaki genuen, ondo pasatze aldera. Apurka aurrerantz nindoala ikusi nuen eta, azkenean, kopa osorik egin dut, eta hirugarren amaitu dut.

Koparen balorazioa positiboa da?

Kopa urtariletik irailera bitartean jokatu da, hileroko proba bat, uztailan eta abuztuan izan ezik. Orokorrean, balorazioa positiboa da. Lehenengo lasterketak, apirilera arte, oso ondo irten zitzaizkidan, eta lasterketako lider ipini nintzen. Baina, lider nindoala, lasterketarako aste biren faltan, jausi egin nintzen eta belauna zabaldu nuen; bederatzi puntu

eman behar izan zizkidaten. Orduan, lasterketara ia entrenatu barik eta puntuak kendu berri heldu nintzen. Asko sufritu nuen. Azken lasterketan ere ez nuen ondo pasatu. Presioa zela-eta, ez nuen proban disfrutatzea lortu.

Mendi lasterketen munduan oraintsu murgilu zara. Nolatan?

Beti gustatu izan zait korrika egitea. 2017an aurreko lotailu gurutzatua apurtu nuen, eskiaitzen. Orduan, lagun bat mendian korrika egiten hasi zen, eta bere lasterketara joaten hasi nintzen. Martxoan egin zidaten ebakuntza, eta irailan berriro ere korrika egiten hasi nintzen. Azaroan, animatu eta Lemoako lasterketan



OLATZ AIZPITARTE URIARTE

Elorrio, 1990

parte hartu nuen, eta hirugarren postuan amaitzea lortu nuen. Harrezkero, mendi probetan nabil.

Zer ematen dizue lasterketek?

Mendi lasterketetan gozatu egiten dut, ez baitago beste kiroltako lehiakortasunik.

Zein izango da parte hartuko duzun hurrengo proba?

Ez daukat oso argi. Baina azaroan Lemoan jokatu den lasterketan seguru egongo naizela. Nire lehenengo lasterketa izan zen eta ez dut hutsik egingo.





ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



DURANGO
82 m²
ERRETENTXU: 82m². Guztiz berriztatua. Berria. Terraza. Bizitzera sartzeko moduan.
240.000€ / NEG.



BERRIZ
3 komun
4 logela
BERRIZ: 155 m² 3 solairutan banatuta. 4 logela, 3 komun, sukalde-jangela eta egongela tximiniagaz. Trastelekua. Estudioa.
160.000€



IURRETA
3 logela
IURRETA: 3 logela, sukaldea, komuna, egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. 1. go mailako materialak.
97.500€



AUKERA
3 logela
80 m²
AUKERA: 80 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea.
93.000€



ABADIÑO
3 logela
2 komun
LAUBIDETA: 81 m². 3 logela horma-armairuekin, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Terrazak. Argitsua. Ikuspegiak
276.000€ / E.E.Z=E



DURANGO
30 m²
TABIRA: 30m²-ko garaje itxia. Goitegi eta guzti. Argia eta ura ditu.
35.000€ / NEG.

//ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

DURANGO: Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela.

DURANGO: Antso Estegiz. 3 logelako pisu ederra. Sukalde berria, komuna eta egongela. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Eraiki berria, 2 eta 3 logela. Azkeneko 3 etxebizitzak salgai. 178.000 €-tik hasita.

DURANGO: Komentukalea. 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Eguzkitsua. Igogailua eta gasa.

DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.

DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Hegoalde kalean. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

IURRETA Maspe kalea: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiagaz. Eguzkitsua. Igogailua.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

ZALDIBAR: 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiagaz. Berriztatua. Trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila salgai. Bifamiliarra eraikitzeko baimenagaz. Zonalde egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

ABADIÑO: Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA - EUBA: Txalet bifamiliarra eraikitzeko lursaila. 3.000 m²-ko lursaila.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Bifamiliarra salgai. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.

MAÑARIA: Baserrria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserrria berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 125.000€

ATXONDO: Baserrri ikusgarria Martzaa auzoan. 15.000 m²-ko lursaila. Teilatua berriztuta. Zonalde egokia.

MENDATA: Lamikiz azunera. Baserrri bifamiliarra. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzen.

BERRIZ: Baserrri ederra, Murgoitio zonaldean. 3 hektareako lursaila.

//BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO
40 m²-tik gorako bulegoak. 350€-tik hasita.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango garaje itxiak salga, 25.000€-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO
3 logela
85,30 m²
ASKATASUN ETORBIDEA: ERAIKUNTZA BERRIA. 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua barne. Sustatzaileak zuzenean ipinitako prezioa.
285.000€ + %10 BEZa



ABADIÑO
160 m²
ABADIÑO: 160 m²-ko lokala. Edeozein jardueratarako prest. Erakusleho handikoa. Komuna. Aire egokitua, alarma, etab
175.000€



DURANGO
4 logela
62 m²
DURANGO: Juan de Itziar. 62 m². 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia.
115.000€



DURANGO
3 logela
60 m²
SAN FAUSTO: 60 m². 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna dutzagaz. Berrikuntzekin.
105.000€



ZALDIBAR
3 logela
59 m²
ZALDIBAR: 59 m². 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Balkoia. Lursaila 40 m² ortua ipintzeko edo jolaserako.
87.000€



MATIENA
2 logela
51,9 m²
MATIENA: 51,9 m². 2 logela, komuna, egongela eta sukalde jantzia. Igogailua jartzeko proiektuagaz. 12,40 m²-ko ganbara.
73.600€

//DURANGO.

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€ / E.E.Z=F**

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. **160.000€ / E.E.Z=E**

ERRETENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000€ / E.E.Z=E** Garaje itxia aukeran

EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, 2 bainugela eta igogailua. **260.000€ / E.E.Z=E.**

EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. LEHEN 321.500 € / ORAIN **300.000€ / E.E.Z=F**

KURUTZIAGA: 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. **99.000€ / E.E.Z=Bidean**

MONTEBIDEO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Igogailua. **230.000€ / E.E.Z=F**

SANTIKURTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600m²-ko lurzorua. **640.000€**

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € / ORAIN **278.000€ / E.E.Z=E**

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Trastelekua eta garajea. **235.000€ / E.E.Z=E**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000€ / E.E.Z=F**

BILBO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela-jangela eta 3 komun. Balkoia. LEHEN 195.000 € / ORAIN **160.000€ / E.E.E=E**

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000 € / ORAIN **85.000€ E.E.Z=E**

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000€ / E.E.Z=E**

//IURRETA

FAUSTE: Baserrria lurzorugaz, **220.000€ / E.E.Z=G**

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. **276.000€ / E.E.Z=E**

//MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000€ / E.E.Z=F**

//OTXANDIO

ELIZABARRI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000€ / E.E.E=F**

OLETA AUZO: Banakako etxebizitza. 460 m² 3 solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Garajea eta txokoa. 5.000 m²-ko lursaila. **480.000€ / E.E.Z=E**

//ELORRIO

BERRIOTXOA: 3 logela, sukaldea, egongela, jangela eta bainugela. **160.000€ / E.E.Z=E**

//BERRIAK

//DURANGO

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **390.000€ / E.E.Z=E**

IBAIZABAL: Logela, sukalde-egongela eta komuna. **170.000€ / E.E.Z=E**



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Abadlño. Muntzaratz auzoan, 90 m²-ko etxebizitza trastelekuarekin salgai Arlozabal kalean, 3 logelakoa. Tel.: 665 73 31 51

ETXEBIZITZAK EROSI

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Zaldibar. Zaldibarren herri erdigunean, 3 logelako pisua, oso eguzkitsua, igogailuarekin. Tel.: 616 24 30 53

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

EElorrio. Elorrioko bikote arduratsu bat gara eta alokairuzko pisu bila gabiltza (Elorrioren bertan). Tel.: 688 64 06 04

LAN ESKARIAK

ETXEKO LANAK

PERTSONAK ZAINDU

Esperientziadun umezaina. Kaixo, Irantzu naiz eta Durangon bizi naiz. Urte askotako esperientzia daukat umeak zaintzen eta begirale

lanetan. Umezain lan bila nabil. Ahal izanez gero ordu solteak edo lanaldi erdira. Tel.: 644 41 11 74

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handiduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauez zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646-35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

IRAKASKUNTZA

Zientziako klase partikularrak. DBH (3. eta 4. mailan) eta Batxilergoan laguntza klaseak

ematen ditut: matematika, fisika/kimika eta teknologia ikasgaietan. 5 urtez irakaskuntza formalean ibili naiz eta zientzietako ikasgaietan daukat formaziorik handiena. Interesik badakazue jarri nirekin harremanetan: Tel.: 669 69 24 30 (Ane)

LAN ESKAINTZAK

ETXEKO LANAK

Plantxa orduka egiten dut. Esperientzia handiko emakumea, orduka plantxa zein etxeko lanak egiteko prest. Durangon edo lurretan. Tel.: 645 70 6839

PERTSONAK ZAINDU

Umeak zaintzeko. Umeak goizetan eskolara eramateko edo zaintzeko prest nago. Eguerdietan eta arratsaldetan seietatik aurrera ere ahalko nuke. Urte askotako esperientzia daukat. Irantzu Tel.: 644 41 11 74

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo

orduka lan egiteko prest nago. Gipuzkoan zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali, Tel.: 602 89 50 18 gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile gisa lan bila.

Adineko pertsonak (barneko langile) edota haurrak zaintzeko prest nago. Baita etxeko garbiketa lanak egiteko, arropa lisatzeko eta sukaldaritza lanak egiteko ere (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin: Tel.: 644 55 83 90

Barneko langile gisa lan bila.

Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu Tel.: 643 72 71 98 telefono zenbakira.

Pertsona nagusiak zaintzeko.

Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurilaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

Mallabian pertsona bat behar dugu andre bat zaintzeko.

12:00etatik 19:00etara Mallabian andre bat zaintzeko pertsona bat behar dugu. Euskaraz jakin dezala. Mallabiko edo Ermukoada bada hobeto. Tel.: 695 78 78 99

Umeak zaintzeko eta klase partikularrak emateko prest..

0-12 urte bitarteko umeak zaintzeko edota klase partikularrak emateko prest nagoen 24 urteko neska bat naiz. Haur Hezkuntzako unibertsitate gradua bukatzen ari naiz eta esperientzia handia daukat mundu honetan. Elorrio eta inguruetan lan egiteko prest nago. Interesatuak nirekin kontaktuan jarri Whatsapp bat idatziz edo deituz Tel.: 692 71 66 46 telefono zenbakira.

Klase partikularrak

Lehen hezkuntzako umei lanak egiten laguntzeko prest dagoen 17 urteko neska bat naiz. Aurretik beste ume batzuekin lan egin dut. Orain, zientzia batxilergoko 2.maila egiten ari naiz. Nirekin kontaktuan jartzeko, Tel.: 651 30 62 34 telefono zenbakia erabili. (Durango)

ASTE HONETAN

ELENA LAKA ETA KIKE AMONARRIZ DOAN

Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.



ttap
Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

Informazio gehiago:
ttap.eus



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

Botikak

BARIKUA, 27 · 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 28 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-13:30

DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

UNAMUNZAGA Murrueatorre 2C - DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO

JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

DOMEKA, 29 · 09:00-09:00

DE DIEGO INTXAURREONDO 22. - DURANGO

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 30 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 1 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 2 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 3 · 09:00-09:00

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak



**GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Kantari, kantari kantari,
Zorionak gure **Lurri**
urte askotan ta egunero
gurekin zaittugu espero!

Zorionak, maitia!



Zorionak, **Laia!** Irailaren 26an
6 urte egin dozuz eta primeran
ospatuko dogu danok. Mosu handi-
handi bat etxeko danon partez.



Zorionak, **Nahia** eta
Paul, urriaren 2an 5 urte.
amak eta aitak asko maite


Eskela



Urko Egidazu Berrioategortua

Alkarraz bizitakue eta gozatutekue betirako egongo da gugaz.
Bihotzien dekogu zure maitasune eta bizipoza.
Maite zaitugu, primo!

Ainhoa, Amaia, Ander eta Arantza
Hurrengora arte



Anton Uberuaga Zabala 'Txatue'



Izerdixe kopetan,
barrie arpeixen
mendixen nahiz kalien
maitie zinen danien
beti etxekoen bihotzien

Mallabian, 2019ko irailaren 28an. 9. urteurrena

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 21° / 14°



DOMEKA ↓ 28° / 13°



ASTELEHENA ↓ 28° / 14°



MARTITZENA ↓ 20° / 14°



EGUAZTENA ↓ 16° / 12°



EGUENA ↓ 19° / 11°



ARRETXE GESTION
ERAKIBUNTZA ETA BIRGAIBUNTZA

TXALETAK - TXOKOLAK - FATXADAK
BASERRIAK - ETXEBIZITZAK TEILATUAK
NABEAK - ERATSKETAK - MARMOLGINTZA
HARGINTZA - INPERMEABILIZAZIOA

GREMIOEN ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA

WWW.ARRETXEGESTION.COM INFO@ARRETXEGESTION.COM
658 120 215 ZORNOTZA / BIZKAIA

DIBA
KOOPERATIBA

Durungaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

“Jai Batzordeak antolatu arren, dantzariak izan dira beti sanmigeletako ugazabak”

Sanmigelei soinua emango dien 25-30 dozena txapligo hartu ditu aurten ere Joseba Agirre ‘Iketza’-k

Joseba Agirre Agirre ‘Iketza’
(Iurreta, 1959)

- Sanmigelen jai hasierako txapligoa jaurtiko du

Berba bitan

Sanmigeletan ezin da falta....
Dantzariak

Zeren falta igartzen duzu jaietan?
Ahari topeakak

Dantzari Dantzako dantza bat?
Makil-jokoa eta Atzezkoa

Abesti bat?
Lepoan hartu eta segi aurrera

Zer gurago duzu, gutuna ala posta elektronikoa
Mugikorria ia erabili ere ez dut egiten. Gutuna, dudarik barik.

Mozorro bat?
Edozein. Denak dira onak.

Pelikula bat?
Edozein western

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

45 bat urte dira sanmigelen jai hasierako txapligoa jaurtitzeko hitzorduari hutsik egiten ez diola ‘Iketza’-k. Bihar Montoian batuko den taldeak 70eko hamarkadan hartu zuen lekukoa. Mikel eta Goiuri Sopelana, Miren Txabarri eta Adolfo Abasolo ibili ziren aurretik, besteak beste. ‘Iketza’ dantzaria izandakoa da, eta baita postaria ere urte askoan. Oraintsu hartu du erretiroa.

Garai batean, piroteknia bonba ere jaurtitzen zenuten. Orain, jai hasierako txapligoa botatzen duzue.

Ohiko bolanderaren aurretik, 75 diametroko txapligoa botatzen hasi ginen 1981ean. 06:00etako kalejiran ere botatzen genuen. Etxebarriko landan ipintzen genuen, Montoi alboan. Debekatu egin zuten, lar gogorra zelako. Gero, jai hasierako txapligoagaz hasi ginen. Txikitxoagoa da, baina honek ere ateratzen du zarata.

Jaiak hasteko eta amaitzeko ere jaurtitzen dituzue txapligoak...

Jaiak agurtzeko, plaza ostetik botatzen ditugu, zeruari kolore apur bat emateko.

Kontatzeko moduko pasadizorik...

Ez nuke jakingo esaten. 06:00etan botatzen genuenean, inor ere ez zen egoten kalean, eta inoiz ezustekoren bat izango zen. Orain lau bat urte, hasierako txapligoak ez zuen nahikoa indar edukiko-edo, eta zuzen igo beharrean, behera bajatu zen. Jendearengandik gertu lehertu zen, baina ez zen ezertxo ere gertatu.

Dantzaria eta dantzan irakasten ibilitakoa zara. Alabak ere dantzariak dituzu. Dantzariak instituzio bat dira Iurretan.

Herrian, dantzariena izan da beti plaza giroa. Sanmigeletako ugazabak izan dira beti, jaiak Jai Batzordeak antolatu arren. 1956an, Iurre-

tako dantzariak ez zuten dantzan egin jaietan. Ez zuten tratua lotu Jai Batzordeagaz, eskatzen zutena garestitxoa zelako-edo. Bada, berriztarrak etorri ziren dantza egitera. Gero, 1958an, Iurretako talde berria irten zen plazara, Jose Mari Zarrabeitiak erakutsita. Garai batean Iurretako etxe bakoitzean dantzari bat zegoela diote.

San Migel egunekoa da dantzarien plaza nagusia. Saio hori eta jaietako gainerakoak grabatzen dituzu. Nolatan?

Bai. Jasota geratu daitezten.

Gu dantzan hasi ginen 1976an, Jose Julian Bakedanok grabatzen zituena, super 8 kamera batez.

Gero, Bizkaiako Dantzarien Biltzarretik be hasi ziren etortzen, eta, ondoren, Txebi Arriaga ere bai, Gernikatik. Plaza utzi nuenean hasi nintzen ni grabatzen, 1990ean. 1989an nire ikasleak lehenengoz plazara irten eta gero. Baditut bideo batzuk.

Argazki artxiboa egiten ere bazabiltza.

Dantzarienak eta herriko argazki zaharrak ditut, 500 inguru. Erakusketa txiki bat egin gura nuke eta liburuxka kaleratu. Ia datorren urtean.

Garaiko Aurreku Txapelketa hainbat bider irabazitakoa zara.

Bai, hamaika bat bider, ez dut gogoan. Lehia osasuntsua genuen, Abadiño, Iurreta eta Berriz artean. Gaur egun ez dot egiten, baina ez zait ahaztu!

Aurten ez dago mozorro egunik sanmigeletan...

Mozorro egunik ez, baina Gau Zuria izango dugu. Bestalde, Kua-drillen Egunean paella txapelketa egingo da eta batzuek mozorrotzea pentsatu dute. Gau Zurian mozorrotu egingo naiz, hori seguru!



Lau-hortza

Alina Ahtamon Medikua



Opor osteko sindromea

Gauza bat aitortu behar ditzuet: aurten, nire bizitzan lehenengo aldiz, benetako oporrak izan ditut. Nire bikotekidearekin Europako hainbat herritan egon naiz, eta, egia esan, itzelezko bidaia izan da. Europatik bueltan, Durangon egun batzuk pasatu eta gero, nola ez, Txilera bueltatu eta jada bi egun daramatzat lanean. Lana hasi baino lehen, orain dela urte askotik hona entzuten den “opor osteko sindromea”-ari buruz pentsatzen hasi naiz: “Agian sindrome hori izango dut nik ere?”, “existitzen al da?”. Horren ondorioz, ikerketa txiki bat egin dut. Zenbait zientzialariek diotenez, Madrilgo Unibertsitate Psikologia Fakultateko adituek kasu, “opor osteko sindromea” ez da gaixotasuna. Hala ere, beste aditu batzuek, ikerketa sakonak egin ondoren, Espainiako biztanleen %35ek pairatzen dutela uste dute, batez ere gazteek, hau da, 25 eta 45 urte bitartekoek. Nolanahi ere, gaitzak batzuei besteei baino gehiago eragiten die. Argi dagoena da banakoaren eta nortasunaren baitan omen dagoela. Beraz, nola egin aurre opor osteko nagikeriari, nekeari eta abarri? Batzuk botika eta antsiolitikoak hartzen dituzte; beste batzuek, ordea, aurrera egiten diote, hurrengo oporrak antolatzen hasiz, eta zer egiten dut nik? Egunerokoa oporretan banengo bezala bizitzea aukeratu dut, pozpozik, datozen arazo eta zailtasunekin. Orain, zure txanda. Zer aukeratzen duzu zuk?

ALKIMAX
Irtenbideak alokatzen ditugu

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



AIRE EGOKITU ETA BAPORATUAK

